

## Literatura →

# Camorrrak lege moralak irensten dituenekoa

Alex Gurmuxaga

Pasazait argitaletxe sortu berria euskarara itzulitako obrak argitaratzeko asmoa sortua da, eta kaleratua du lehen liburua, Andrej Longoren *Hamar* ipuin bilduma, Josu Zabaletak itzulia. Nekez pentsatuko zuen Andrej Longok (1958, Isquia, Italia) hamaika argitaletzek *Dieci* (2007) atzera bota ziotenean Adelfi argitaletxe txikiak argitaratu ondoren Bagutta, Vittorini, Chiara edota Bergamoko Narratiba sariak irabaziko zituela. Lehen narrazioa 1992an argitaratu bazuen ere, esan daiteke narrazioz esan dutela Italian Longoren *crescendo editoriale* bat dela.

Hamar ipuin, Hamar Agindua eta Napoliko giro itxia: horra liburuaren osagai nagusiak. Ipuin bakoitzak agindu baten izena du, eta hari nagusia horrekin zuzenean lotuta dago. Baina ez agindua betetzen duten pertsonak ditugulako, alderantziz, pertsonaia horiek ez bai-

tute lege moral edo etikorik jarraitzen. Hamar Aginduak bizikidetza soziala antolatzeke lehenengoetariko legeak dira, batzuk erlijiosoak eta beste batzuk etikorik nahiz moralak, eta Longok berak honela esan zuen (*La Repubblica*, 2007): «Edonolako lege moral eta etikoren absentsia kontatu nahi izan dut. Nola uzten dituen absentsia horrek pertsonak bakarrik, biluzik eta etsita euren buruaren aurrean». Eta halaxe aurkituko ditugu ipuino-tako pertsonaiak, arazoan aurrean babesgabe, bakarrik eta itxaropena galduta.

Gertaerak Napolin kokatzen dira, Italiako bizi-kalitate eskasenetakoa duen hirian, Camorrrak itotzen duen eta gizonak nagusi diren gizartean. Giro horretan uler daitezke ipuin guztiak, eta horrek ematen dio batasuna ipuin bildumari (pertsonaren bat birritan agertzen da), nahiz eta autoreak berak esana denez, Mendebaldearen irudi bat ere izan nahi lukeen bildumak oro har.

Gaiak gogorak dira, nahiz eta batzuk topikoak izan: camorrenak (estortsioa, lapurretak, hilketak, etab.), gaueko istiluak, drogazale baten hondoratzea, haurdun geratzen den neskatilarena, etab. Alde horretatik istorio harrigarrik ez dugu aurkituko *Hamar*-en, eta nago hori ote den ipuin liburu honen gabezia, gaiek irakurlea gehienetan ez harritzea.

Alabaina, kontaketa biziak berehala sartzen du irakurlea gertaeren zurrumbiloi. Narratza-



## 'HAMAR'

- **Egilea:** Andrej Longo.
- **Itzultzailea:** Josu Zabaleta.
- **Argitaletxea:** Pasazaita.

leak istorioaren barnean daude beti, protagonistak eurak dira bizi-penak lehen pertsona kontaketzeko lana hartzen dutenak. Bestalde, eta hau da ipuino ezaugarri nabarmenena, dramatizazioa etengabea da; esan nahi da, elkarriketa luzeak eta estilo zuzenean emanak dira nagusi. Are gehiago, zenbait pasartetan apenas dago narrazioa, eta ia antzerki-akotazio hutsak iduri dutela esango genuke. Narrazioa, gainera, oso hotza da estilo aldetik; horrek kontraste interesgarria sortzen du gertaeren gogortasunarekin baina, hala ere, tonua hotzegia da nire gusturako, neutroa erabat, ia kronika baten parekoa.

Elkarrizketen nagusitasun horrek ipuinei abiadura eta bizitasuna ematen die, eta era berean oso egoera bisualak eta zinematografikoak sortzen ditu. Horrez gain, aipatu beharrekola dela uste dut ipuin gehienek ongi eusten diotela tentsioari amaierara arte, eta nola askok azken unean irakurlea harritu ere egiten duten.

Azken batean, gaiek, gogorak izanagatik, ez gaituzte behar bada asko harritu, baina lirismo-rik gabeko errealismo gordinak, elkarrizketa ugariak dituen kontaketa biziak eta istorioek mantentzen duten tentsioak irakurketa gustagarria ziurtatzen dutelakoan nago.

## Seigarrena sei



Koldo Zubeldia

## 'SEIGARRENA SEI'

- **Egilea:** Koldo Zubeldia.
- **Argitaletxea:** Erroteta.

«Inspirazio iturria dute herriari diodan atxikipena eta natura bizian igarotzen ditudan momentuetan etortzen zaidan hitz pila eta nire hitz propioz osatuak», dio egileak, poemei buruz, liburuari idatzi dion hitzaurrean. Testu berean, aurrerago, «herriarekin bat eginda poeta sumin eta herri maitale izatea» nahi duela adierazten du.



## 'BEHINOLA', 25. ZENBAKIA

- **Argitaratzailea:** Galtzagorri elkarte.

Dani Maizek euskal ilustrazioaren historia erreparatu du, eta Imanol Mercero euskal ilustrazioaren egungo egoeraz idatzi, *Behinola* aldizkariaren 25. zenbakian. Jone Arroitauregik Asun Balzola eta Mariasun Landaren arteko kidetasunaren motiboak aztertu ditu. Mikel Aierbek album ilustratuak ditu hizpide bere idazlanean.



## 'ZONBIA SAN MAMESEN'

- **Egilea:** Fernando Morillo.
- **Argitaletxea:** Gaumin.

Ustekabean zonbi bat ezagutu dute Zorok eta haren lagunek jauregi zahar baten barruan. Eta nahi gabe askatu ere egin dute zonbia. Orduan, Zorok aitaren gana jo du laguntza eske, baina Zororen aita ere oso berezia da, eta orduan... Abenturazko nobela zoroa da Fernando Morilloren hau, azalak ondo iradokitzen duen moduan.

## Haur eta gazte literatura

## Sagako bigarrena

Ezekiel (2009) eleberrir arrikastatsuen jarraipena kaleratu berri dute. Inondik ere, Jasone Osoro gazte literaturako sagak egiten espezialista bihurtzen ari zaigu, berea baita Jara, lau titulu eta dozenaka berrargitalpen dituen fenomeno literarioa.

Idazle elgoibartarraren arma nagusia nerabeak bitartekari gabe hizketan jartzea da, gaztetasunaren estereotipo jakin bat hobetsiz, eta aurreiritzi edo juzguak haien ahotan utzita. Hori eta testu irakurteraz eta ongi behatuak eskaintzea, esfortzu minimoarekin irakurri ahal izateko batez beste dituzten 150 orrialdeak.



## 'EZEKIEL NORA EZEAN'

- **Egilea:** Jasone Osoro.
- **Argitaletxea:** Elkar.

Hala jokatu izan du Jararekin, neskato nerabeen soslaia erretratatu, eta halaxe ari da Ezekielekin, bere *alter ego* maskulinoa.

Gogora dezagun Ezekielen lehen eleberrian protagonistaren eta haren hiru lagunaren musu bat lortzeko gorabeherak kontatzen zirela, neskak eta motorrak beti gogoan zituen 14 urteko laukotearen bizi-xede ia bakarra.

Oraingoan, dena antzeko jarreran aurkituko dugu.

Oraingoan ere dena Ezekielen inguruan eraikita dago: lekuak, uneak, ekintzak... Pertsonaia gehienak nerabeak dira. Lau agertokiak eskolako pasilloa, gazte lokala, taberna eta etxea dira. Eta, jakina, klimaxa ekarriko duen unean, txosna eta DJa dituen festaz gozatuko dugu.

Narrazioa arina eta elkarrizketa askokoa da, Ezekielen pentsamendu pendularrean mugildua. Mutilari errukiz jarraitu eta *happy end*-a nola iristen den irrikaz irakurriko dutenen bazka perfektua.

- **IMANOL MERCERO**

## Hemezortzi artelan

Jada hemezortzi ale kaleratu dituzte OQO-Txalapartakok Txo! deitzen dioten bilduman. Guztiak album ilustratuak eta guztiak kalitatea kontuan hartzen dutenak. Berritzaileak eta berrizaleak, haur literaturaren abangoardia dira *de facto*.

Txo! bildumak hain modan dagoen album ilustratuaren panorama zertan den islatzen du, eta formatu honek gidioetan dituen ahalguneak gaintzen saiatzen da. Zinez eskertzekoa da jarrera hori, baina beti ez du lortzen. Batik bat, gidoi bikainen



## 'MAGIA'

- **Egilea:** Charo Pita.
- **Ilustratzailea:** Madalena Matoso.
- **Itzultzailea:** Arkaitz Goikoetxea.
- **Argitaletxea:** OQO-Txalaparta.

falta sumatzen delako gaur egungo albumetan. Kalitatezko gidioekin eraikitako albumak irakurtzeko, 60-70-80ko hamarkadetakoa obretara jo behar delako, M. Sendak, L. Lionni, A. Lobel... eta halako maisuengana.

Esandako guztiaren adibide, bilduman kaleratutako azkeneko esku artean dugu *Magia!* da.

Collage teknika darabil, sobietar garaiko estetika gogoraz dezakeena, kolore natural eta forma basikoak dituzten irudiek.

Istorioren haria hutsala da, errepikapenean oinarritua. Honengana jo, gero hurrengoaren gana, gero... azkenekoak soluzioa emango dion arte. Baina liburu interesgarria da, irudiengatik eta ukitzen duen gaiarengatik.

Istoriu honetan, Oskar deritzon mutil batek bere lehengusua zaindu behar du, titiko haur bat. Oskarrek ahaleginak egingo ditu hauraren negarra isiltzeko. Goseak dagoela iruditzen zaio, baina ez daki zer eman. Pastela? Azenarioa? Arrautza? Aitona Andresek badaki. Zuk, irakurle bizkor horrek, badakizu zer behar duen haurtxoak, ezta? ■ **I. MERCERO**

## Literatura →

## Bizinahia eta melankolia

Alex Gurmutzaga

Inspirazioak jotakoan soilik idazten duen poetaren irudia birrindu duenik baldin bada gurean, Karlos Linazasoro da. Etengabe idazten duen idazlea dugu, urtero argitaratzen du libururen bat edo beste, eta apenas utzi duen generorik landu gabe. *Ezer gehiago behar gabe* poema liburua da argitaratu duen azken lana (hamar poema liburutik gora ditu argitaratuak) eta Gipuzkoako Aldundiak antolaturiko lehenengo Xabier Lete Saria irabazi du aurtan.

Poemategi ederra eta ona da, Linazasororen poetikaren ezaugarri nagusiak biltzen dituena. Poema laburrak dira, bertsokera libre eta erritmo zaindua dutenak. Esan behar da estilo aldetik, bere narratioetan ez bezala, ez dela bereziki apurtzailea; poetika modernista da Linazasororena, oinarri dituen sinboloen bidezko iradokizuna eta natura behatzen sortzen den ebokazioa.

Poetak sortzen dituen sinboloak irekiak dira, eta ez dute zentzu hertsia, polisemikoa baizik: irakurleak interpretatzen eta sentitzen dituen metaforak dira giltza-

rri. Horrela, poesiak zehazki ezarritako zentzu bat baino, sentsazioak transmititzen ditu. Gainera, simbolismoa kasu honetan urrunago doa; izan ere, surrealismoa osagai funtsezkoa da poema liburuan. Poetak sentimenduei askatasuna eman nahi die irudi surrealista eta irrazionalen bidez.

Bestalde, denbora gelditu egiten da poematan, eta, estatikotasun horretan, gai askoren inguruko ebokazioa nagusitzen da: denbora, haurtzarora, iragana eta etorkizuna, bakardadea, heriotza edota memoria. Maitasuna ere gai nabarietako bat da; aipagarria da alde horretatik bigarren atala, 2005etik 2009ra idatzitako poemak biltzen dituena. Horietan maitearekin identifikatzen dugun *zu* zehazgabe bat agertzen da, Cesare Pavesearen azken poematakoaren estilokoa eta Linazasororen lehenagoko zenbait liburutan ere nabaria zena. Atal honetan aurkitu ditut nik liburuko poema ederrenetakoak.

Sariketako epaimahaiak poemategiak gai eta tonu aldetik duen batasunaz hitz egin zuen. Hain zuzen, tonu poetikoari eusteak osotasuna ematen dio libu-

ruari baina, hala ere, badira desberdintasunak. Lehen atalak, bereziki (*Hilzirenak begietan*), forma aldetik desberdintasun aipagarriak ditu: fragmentazioa, elipsi handiak eta narratibiterik eza nagusitzen dira. Gainera oso atal surrealista da eta *Etxe hutsean* poema liburuan (2009) oinarritzakoa zen amaren heriotzaren gaia ere agertzen da.

Eragin desberdin asko ditu Linazasororen poesiak, eta tartean azpimarratzekoa da aurreko liburuetan ez bezala nabarmentzen den Xabier Leterena. Linazasorok berak aitortu zuenez, Letek



#### 'EZER GEHIAGO BEHAR GABE'

- Egilea: Karlos Linazasoro.
- Argitaletxea: Pamiela.

eta berak ezaugarri komunak dituzte melankolia eta ironia. Hala, sariketaren egunean huraxe gogoratu nahi izan zuen. Oiertzuarrrak *Zuk badiozu* poeman idatzi zuenez, «nik ez dut ezer, hori da gauza (...) / bizitza baten azken hondarrak / eta zuloak patrikan». Linazasorok ere ikuskera melankoliko eta aldi berean autoironiko berbera erakusten du. *Denbora aleak* (2005) liburuko poema batean zera idatzi zuen: «Gero eta guttiago behar dut bizitzeko».

Esan dezakegu oraingoan mugara iritsi dela sentipena; melankoliaz beterik ageri zaigu ni poetikoa, baina, era berean, ezer gehiago behar gabe bizitzeko aldarrria egiten digu. Hona hemen poetak saria jasotzerakoan esan zituen hitzak: «Nik ere, zuek bezala, galdarak besterik ez dauzkat, eta azkenean ulertu dut bizitzak aurrena dena ematen dizula, eta gero, apurka-apurka, kendu egiten dizkizula eman zizkizun gauzak, eta horrekin ikasi behar dugula bizitzen, horrekin bizi behar dugula, ezer gehiago behar gabe. Akaso, ez dagoelako besterik ezer, edo akaso beste zer bait badago ere, ez delako guretzat».



#### 'MADE IN GALIZA'

- Egilea: Sechu Sende.
- Itzultzailea: Txerra Rodriguez.
- Argitaletxea: Txalaparta.

Galiziako argitaratzaileek urteko libururik onenaren saria eman zioten Sechu Senderen lanari 2007an. Geroztik, bideoak grabatu dituzte edo komikiak marraztu, liburuen hainbat pasarterekin. Hamaika ipuin labur dira liburuan bildutakoak, umorez, fantasiaz edo garraztasunez idatzitakoak.



#### 'JACQUES ANQUETIL'

- Egilea: Raul Perez Martinez.
- Argitaletxea: Autoedizioa.

Jacques Anquetil txirrindulari frantziar ohiari buruzko biografia osatu du Raul Perez Martinez kazetariak. Grand Prix des Nations proba 1953an irabazi zuenetik, 1969an Euskal Herriko itzulian gailendu zen arte. Tartean, Tourra bost aldiz irabazi zuen lehena bilakatu zen. Txomin Perurenak idatzi du hitzaurrea.



#### 'KARMEL', 279. ZENBAKIA

- Argitaratzailea: Euskal Herriko Karmeldarrak.

Kultura atalean Sabin Muniategi olerkariari buruz idatzi du Luis Baraiazarrak, aurrenekoaren jaiotzaren mendeurrena bete dela probestuz. Gizartean, berriz, *Pobrearen ametsa laburra* idazkia osatu du Jabier Onaindiak, eta olerkien atalean Miren Agur Meaberen eta Holderlin-Arostegiren aleak bildu dituzte.

## ↓ Haur eta gazte literatura

### Zu primatea zara, bazenekien?

Gutxitan iragartzen dugu harelako albisterik: mundu osoan ospea duen ilustratzaile eta idazle ingeles baten obra bat plazaratzean, ingelesezko origina ez ezik, aldi berean euskarazkoa ere argitaratu dute.

Idazlea Anthony Browne da (Sheffield, 1946). Haur literatura estetikatik harantzago eramateaz arduratzen den album egilea. Gurean ezaguna da *Urdaburutarrak* edota *Kezakamuxelak* lanengatik, kurioski tximurik agertzen ez duten Browneren obra bakaneta-

ANTHONY BROWNE



#### 'GORILA BAT: ZENBATZEKO LIBURUA'

- Egilea: Anthony Browne.
- Itzultzailea: Manu Lopez Gasen.
- Ilustratzailea: Anthony Browne.
- Argitaletxea: Pamiela-Kalan-draka.

kobi. Nazioarteko sariak *Gorilla* (1983) albumarekin iristen hasiztzaizkion, baina, sariez gain, kritikarien eta irakurleen onospena dira britainiar liburugile horren bertute handienak.

*Gorila bat* tamaina handiko albuma da, azalean gorila bat dakarrena, egiantzekotasun handiarekin marraztua, irribarretsu eta herabe.

Barruan, bi-orriko bakoitzeko primate mota bat dakar: gorila bat, bi orangutan, hiru txinpanze... hamar lemur. Jarraian, zenbakirik gabe jada, Browne beraren erretratua dago, primatea dela aldarrikatzen, eta azken bi-orrikoan arraza, sexu eta adin ugaritako jendea, familia berekoak denak, primategiak, diotso.

Hortaz, zenbaketa lantzeko liburu bat da albuma, baina baita primategien erretratu bilduma bat ere, gizakion primategi izatearen aldarrikapena zein eboluzioaren teoriaren aldarrikapena eta, noski, zoologia tratatu txikia.

Ezin gehiago eskatu 32 orrialdeko liburu bati. Adin guztientzako ezinbesteko bat.

■ IMANOL MERCERO

### Ibaizabalen udazkena txikientzat

Azal gogoreko eta tamaina txikiko album ilustratu hau bilduma baten lehen zenbakia da. Bertan, narrazio oso simple batean, protagonistaren eta gainerako pertsonaien aurkezpena egiten da.

Lehen ale honetan *Burgi* hartz nabarra hibernaziotik esnatu berri da eta besarkada baten behar larria sentitzen du. Parean jartzen zaizkion guztiakin saiatzen da, baina ingurukoak izutzea besterik ez du lortzen. Untxiak, bere *biktimetako* bat, bide egokian jartzen du, beste kobazulo baten atarian. Nor biziko da kobazulo hartan?

Istoriolan hauren sentimen-



#### 'BURGIK BESARKADA BAT BEHAR DU'

- Idazlea: David Melling.
- Itzultzailea: Miren Agur Meabe.
- Ilustratzailea: David Melling.
- Argitaletxea: Ibaizabal.

duak adierazteko ezintasunaz hitz egiten da, zeharka betiere. Hala, besarkadak jaso eta emateaz ari zaigu, hurrelaskotan gertatzen zaien *nahigabeko min eragite* buruz ere bai, eta, oro har, maitasuna adierazteko bideak esploratzeko gogoia pizten du. Hori dena bilduma baten lehen alearen aurkezpena eginez, bereziki bildumako pertsonaien aurkezpena: *Burgi*, ardiak, untxia, hontza eta *Burgi*-ren gurasoak.

Ilustrazioak umoretsuak dira, kolore epelak erabiltzen dira, eta fokuan dagoena baino ez da marrazten. Horregatik, askotan, *Burgi* hondo txuri baten gainean agertzen zaigu.

Testua letra lamiz idatzita dago, lehen irakurleak gogoan.

Burgiren bilduman hiru ale kaleratu dituzte.

Horretaz gain, *Leontzi* bilduma berria ere argitaratu dute, tamaina txikiko lau zenbakirekin eta tamaina ertaineko bosgarrenarekin. Urtebetetik aurrerako irakurleentzat.

*Burgi* hiru urtetik gorakoentzat gomendatzen dute.

■ IMANOL MERCERO

## Literatura

## Gerra, haurraren begietatik

Alex Gurrutxaga

**N**obela ederra ekarri dute euskarara Xabier Olarrak eta Fernando Reyk: Lorenza Mazzetti (1928) zinemagile eta idazlearen *Il cielo cade* (1961). Eleberrri autobiografikoa da, zehazki idazlearen haurtzarora kontatzen duena. Lorenza eta bere ahizpa osaba-izeben Toscanako etxean bizi ziren txikitan. Familia aberatsa zen, judua, Einstein abizenek (Lorenzaren osaba fisikari famatuaren lehengusua zen). Zorritzarrez, abizena kondena bihurtu zitzaion familia honi, Hitlerrek pertsonalki eman zuenean Albert Einsteinen senide guztiak hiltzeko agindua. 1944an, erretiratzen ari zirenean, naziek sarraskiak eragin zituzten hainbat tokitan, baita Toscanako Villan ere.

Orduan gertatu zena kontatzen du barru-barrutik Lorenza Mazzettik, nola irentsi zion gerrak haurtzarora: «Gure deitura (ama hila baitzen) Einstein izan beharrean Mazzetti zelako barkatu ziguten SSek bizia». Sortzen duen irudia oso esanguratsua dela esango nuke: haur bat zerua gainbehera etor ez dadin besoak altxata inda-

rra egiten; horrela adierazten du idazleak gerrak ia dena lapurtu zionean sentitu zuen inpotentzia.

Beraz, testigantza da istorioaren oinarrian dagoena, eta testigantza horren berezitasuna da neskato bat dela narratzailea. Hori dela-eta esaten ez denaren garrantzia erabatekoa da. Izan ere, haurraren mundu-ikuskerak bi instituzioek hornitzen dute funtsean: faxismoaren propagandak eta dotrinak. Bere pertzepzioa ez da helduen ikuskera arrazionalaren parekoa, eta irakurleak osatu behar du interpretazioa. Une bazuetan, areago, haurrak guztiz ulertzen ez duenarekiko horrorea ere sentituko du irakurleak. Bide batez, ezin aipatu gabe utzi itzultzaileek haurraren hizkera xumea itzultzeko egindako lana.

Alde horretatik, idazleak asmatu du gertaera esanguratsuak hautatu eta kontatzen. Hautaketa hori dela eta, modu sotilean, ia oharkabean osatzen du irakurleak haurraren inguruko gizartearen irudia: erlijioaren presentzia, faxismoaren indar-sarea, familiaren autoritatea, etxeko zerbitzarien amodio jokoak, judu izatearen arazoa, e.a. Esango nuke osa-

baren figura eta apaizarena direla interesgarri eta konplexuenetakoak, haurrak ikusten ez dituen ezaugarriak antzeman baititzaizke irakurleak eurenengan.

Formalki, atal oso laburrez osatutako eleberria da (41 zehazki, hiruzpalau orrialdekoak asko) eta sekuentzia segida bizi-bizi bat balitz bezala irakurtzen da. Izan ere, Mazzettiren helburua ez da aste bat edo biko gertaeren berri ematea, baizik eta aro bat kontatzea. Horregatik, bete-betean funtzionatzen du atal bakoitza sekuentzia gisa eraikitzeak.



#### 'ZERUA GAINBEHERA DATOR'

- **Egilea:** Lorenza Mazzetti.
- **Itzultzaileak:** Xabier Olarra eta Fernando Rey.
- **Argitaletxea:** Igela.

Soldaduak Villan agertzen diren momentutik aurrera kontakizuna denbora kronologikoari lotuagoa da. Haiek Villan egiten dutenak hartzen du narrazioaren muina; haur-jolasak eta bihurrikeriak amaitzen dira, baita lehenago zeuden umore printzak ere, eta neskatoarengan benetako izua agertzen hasten da: «Baina ni beldurrez nengoen. Ni ote nintzen beldurrez nengoen bakarra? Denak lo zeuden. Ez zuten sentitzen arriskua gero eta hurbilago mamu handi bat bezala abailtzen Villara?».

Txikitasantetik idatzitako eleberria da *Zerua gainbehera dator*, helduen mundua ulergaitza zaion haurraren begiradatik erakia eta, era berean, zerua gainbehera bezala gerra etortzen denan, hari kontra egiteko ahulegia den pertsonaren begietatik sortua. Lorenza Mazzettik eleberriaren amaierako eskaintzari honela idatzi zuen: «Bizirik gelditutako guztiak berekin daramate *pribilegio* horren pisua eta testigantza eman beharra». Testigantza hunkigarria duzu, irakurle, *Zerua gainbehera dator* hau, irakurketa zinez gomendagarria.



#### 'EUSKADI, ARGIA, GRISA ETA BELTZA'

- **Egilea:** Miren E. Palacios Villanueva.
- **Itzulpena:** Erain.
- **Argitaletxea:** Sepha.

«Euskadiko azterketa soziopolitikoak» egin du egileak, bereziki erreparatu sozialismoak 2009ko hauteskunde autonomikoetan eta haien ostean izandako atxikimendu mailari. Magako (Espainia) Sepha argitaletxeak kaleratu du, gaztelaniaz eta euskaraz.



#### 'BAKERAKO JOSTAILUAK'

- **Egilea:** Hector Hugh Munro, Saki.
- **Itzultzailea:** Mario Onaindia.
- **Argitaletxea:** Hiria.

Hector Hugh Munro Saki idazlearen *The Toys of Peace* (1923) ipuin ezaguna eta egile beraren beste hainbat euskaratu zituen Mario Onaindiak, eta lan hori berreskuratu du Hiria argitaletxeak. 1989an izan zuen lehen argitalpena liburuak, Desclee de Brouwer argitaletxean.



#### 'IRRIPARREZKO PRINTZAK'

- **Egilea:** Inaziomari Atxukarro.
- **Apailatzailea:** Joxemari Iriondo.
- **Argitaratzailea:** Gipuzkoako Foru Aldundia.

Segura irratian eta Loiolako Herri Irratian entzule asko izan zituzten Inaziomari Atxukarroren saioek, 60 eta 70eko hamarkadetan. Liburu batean bildu zituzten Auspoa sailerako, eta orain liburua berrargitaratu dute; CD batekin batera, gainera.

### ↓ Haur eta gazte literatura

## Bizi-taupadak

**I**rakurle gazteei begira sortutako Taupadak sailaren barruan argitaratu dute Orleans hirian (Frantzia) kokatutako iniazio eleberrri hau. Erraz irakurtzen da. 200 orrialde pasatxo ditu, eta 21 ataletan banatuta dago. Elkarriketa ugariz hornitua. Ekintzetan zentratua. Ez hori bakarrik. Kontaketa oso dinamiko da, eguneroko baten eran idatzia, eta gazte bizar-guri baten bizitzak abailan jarritakoa.

Protagonista bere ikasketen une erabakigarri batean dago: lanbidea hautatzeko lehen urratsetan. Aita zirujaua da, eta bere antzeko lanbide batean nahiko luke. Ama bokazioz etxekoan-



#### 'MAITE-MAITE ILE-APAINDEGIA'

- **Egilea:** Marie-Aude Murail.
- **Itzultzailea:** Aiora Jaka.
- **Argitaletxea:** Elkar.

drea da —familia tradizional batekoak dira—, eta semearentzat onena nahiko luke. Amona eta arreba txikia dira Louis gaixoari haize pixka bat emango dioten bakarrak, gure Louisek ez baitaiki nondik jotzen dion haizeak.

Oraingoz, astebetetz praktikak egin beharko ditu nonbait. Aitak bere lagun sarearen bidéz konpondu nahi du kontua, baina mutilak ez du gogoko. Zer egin? Amonak aterabidea eskainiko dio, Maite-Maite ile-apaindegian praktika—aldia egitea proposatzen dionean. Mutilak baietz esango du, aita zorratzeagatik, besterik ez bada ere.

Eta halaxe hasten da eleberrri hau. Azpimarratzeko zein zaila den bereiztea apetak, egin beharrak eta norbere nolakotasunek dituzten ahalmenak. Gogorazteko gurasoek euren seme-alabei onena opa badiete ere, egokia eta desegokia zer den erabakitzeo aukera ematea kosta egiten zaiela. Eta, ondorioz, nerabeak maiz ezkutuan ibili behar duela, bere ibilerak gurasoak asaldatu dituen beldur. ■ **IMANOL MERCERO**

## Zabalduta leiho bat basamortuari

**H**aur eta gazte literaturari eskainitako apalategietan topatuko duzu narrazio liburu hau. Liburu honetan basamortuko jendearen mitoak eta elezaharrak aurkituko dituzu, XXI. mendeko kronika estiloen eratuak, protagonistaren aitaren lan bidaia aitzakiatzat hartuta.

Baina *Smara* ez da soilik liburu goraiatua bere narrazio eta ilustrazioengatik, Smara maiz ahoskatutako izen bat da, arrazoi askorengatik.

Smara Mendebaldeko Saharako herri bat da geografia liburuaren, 50.000 biztanletik gora dituen, eta historikoki basa-



#### 'SMARA'

- **Idazlea:** Paula Carballeira.
- **Ilustratzailea:** Carole Henaff.
- **Itzultzailea:** Fernando Rey.
- **Argitaletxeak:** Pamiela-Kalandraka.

mortuko karabanen iparraldeko atarizat jo izan dena.

Historia liburuaren, Smarakoek okupatzaile guztien aurka erakutsi duten grinarengatik da ezagun, espainolen aurka lehenik, frantsesen aurka jarraian eta, orain, marokoarren aurka.

Ahozko tradizioa mantentzeko ere, gainerako alorretan erakutsi duten seta berbera erakutsi dute smaratarrek. Basamortuko eguneroko bizitzarekin uztartzen dituzte sinesmenak, bi ziaren eta heriotzaren arteko betiereko talka, herritarren nortasuna zizelkatzen duten pasarte gogoangarriak.

Obra hau duela sei urte kaleratu zuten lehen aldiz, eta harre-rik bikaina izan zuen, The Withe Ravens zerrenda ospetsurako izendatua izateko adina. Ilustrazioak ere Galiziako Editoreen Elkartearen saria jaso zuen.

Hamar ataletan banatutako 60 orrialde xumetan, helduentzako zein haurrentzako solasa eskaintzen digu; esaterako, ozen irakurrita, pantailadun traste oro itxi, eta basamortuari leihoa zabalduta. ■ **I.M.**

## Literatura

## Fantasiaren ahalmenaz gozatzeko

Alex Gurrutxaga

**H**amazazpi urte pasatu dira Basauriko Euskarabilla Lehiaketa martxan jairri zutenetik, eta aurten argitaratu dute saritutako ipuinekin osatutako hirugarren bilduma. *Bero hezeak* (2001) izan zen lehen alea, *Basa gurina* (2006) bigarrena, eta *ESKU HOR!* hauxe dugu azkena (aurrekoak bezala, Txalapartaren Literotura sailean). Hamabost egileren hamasei ipuin biltzen ditu bildumak, esan gabe doa, guztiak ere erotikoko.

Ez dute guztiak maila berbera, ez dira guztiak orijinalak, topikoak ere badaude, batzuek ez diote tentsioari eusten, eta narrazio teknikak ez dira beti distiratsuak. Alabaina, oro har bilduma ederra eta gomendagarria da.

Erotismoak ez du mugarik, eta pertsonaien aniztasuna nabaria da bilduman: neska-mutil gazteak, apaiza, alarguna, itsua, emagaldua, eta katu bat ere bada Imanol Epeldereren fikzio fantastikoa. Erotismoak, bestalde, kide hurbila du fantasia; hain zuzen, fantasiari eta haren indar berotzaileari gorazarre egiten dio


Edorta Jimenezek hitzaurrean. Octavio Pazek saiakera ezagun batean idatzi zuenez, «irudimena da ekintza erotikora nahiz ekintza poetikora eramaten gaituen». Horretan antzekoak dira, bada, literatura eta erotismoa: fantasiak gidatzen gaitu bietan.

Bildumaren beste ezaugarrietako bat da erotismoaren graduak agertzea. Erotismoa iradokizun soilik da batzuetan (Karme Arrietaren ipuinean), beste batzuetan sexu esplizitu eta iradokizun nahasketa (Txema Perezenean), eta tarteka baita pornografia ere (alegia, irakurlea kitzikatzea helburu duen sexu irudikapena, Estitxu Arozenarenean).

Ezin uka nobelatan eszena erotikokoak ohikoak —eta kasik beharrezkoak— direla, baina ipuinetan erotismoa ez da digresio bat edo eszena berezi bat, ipuinen mamiarekin erlazionatutako zerbait baizik. Horrek ez du esan nahi ipuinaren oinarri bakarra sexua denik beti; izan ere, ipuin gehienetan marko zabalago baten parte da sexua. Iratxe Esnaolak, esaterako, bira interesgarria ematen dio krema emateko eskaera tipikoari 65 urteko emaku-

mea protagonista duen *Egin mesedean*; pasadizoak balio dio adinaz, emakumeaz eta sexuaz ironia puntu batez pentsarazteko. Josu Unzueta *Absentzien kronika* ipuinean ere sexua pertsonaiaren bizitzaren atal bat da soilik: pertsonaia dekadente baten gogoetei segituz, narrazioa ona idatzi du Unzueta. Itziar Abadek politika eta erotismoa uztartzen ditu bere ipuinean, eta Alvaro Rabellik, azken adibide bat jartzearen, alkohol eta sexuz betetako *travelling* azkarra eraiki du.

Alabaina, ipuin batzuetan erotismoa ez dago zerbait handiago-



‘ESKU HOR!’

- **Idazleak.** Hainbat.
- **Argitaletxea.** Txalaparta.
- **Urtean.** 2012

aren barnean, pornografia da nagusi, eta horregatik, oinarrikoa da narrazioaren bidez irakurlearen fantasia martxan jartzea. Mota horretako narrazio lortuenetakoak esango nuke Aitor Mongeren *Hogei urte* eta Eneritz Duesoren *Gurpila* direla (ipuin honen ideia oso orijinala ez den arren).

Fantasia elikatzeari lotuta, erotismoak sentsazioak transmititu behar ditu. Horretarako zentzumenen bidezko deskribapenetara jotzen dute idazleek, pertsonaien ukimena, ikusmena edota usaimena adi jarririk. Gainera, sentsazio horien adierazpena irudi eta sinbolo iradokitzailen bidez indartzeko ahalegina aipagarria da ipuin askotan. Esate baterako, Alvaro Iribarren ipuinean basoa eta ibaia ageri dira erotismoaren espazio idiliko gisa, Karme Arrietaren ipuinean zigarroa elementu klabea da, itsasoa ere ez da ipuin gutxitan agertzen...

Azken batean, bilduma ederra da *ESKU HOR!*, eta oso egokia da literaturaz eta erotismoaz gozatzeko: liburu ona delako eta (hau ez psan inori) esku bakarrarekin idatziak esku bakarrarekin irakurri behar omen direlako.



‘IZEKO ELI ETA BOK’

- **Egilea.** Xabier Oloso.
- **Argitaletxea.** Ibaizabal.
- **Bilduma.** Matxinsalto.

Zortzi urtetik aurrerako haurrentzat idatzi du Oloso *Izoko Eli eta bok* xamagarri hau. Aneren izekorik kutunena da Eli. Bidaia zale porrokatua da izeko, eta bidaia batean lortu zituen Obaba-Ibibi-Bobo zuhaika-hazi misterioitsuak. Ane arduratuko da haiek zaintzeaz.



‘BERTSOA ETA GATAZKA POLITIKOA’

- **Aldizkaria.** Bertsolari.
- **Egileak.** Hainbat.
- **Zenbakia.** 87.a.

## ↓ Haur eta gazte literatura

## Zer da bizitzeko ezinbesteko?

**B**eti ongi etorria eta txalotua den Mariasun Landa bi obra berriekin etorri zaigu euskal literaturaren plazara: *Marikanta eta inurria* Erein argitaletxearekin kaleratu duen inurria eta txixarra fabularen bertso librea eta *Maitagarria eta desioa*, hemendik aurrera aipagai izango duguna.

Eleberrizateko bidean geratu den narrazio luzea, amandre ipuinen ezaugarriak baliatuaz idatzita dago, baina idazlearen erara, libreki interpretatuta, bereziki errealismo kritikorako duen joerari jarraituz.

Izan, aurretik idatzi zuen ipuin baten luzapena omen da (*El hada y el deseo* A las buenas ya las malas, Anaya), behinola idatzitako ipuin izenkideak gehiagorako ematen zuela iritzita.

Idazlearen hitzetan obra honetan aldarrikatzen den ideia nagusia «gauza okerrena ez da gure desioak ez betetzea, baizik deseatzeari uztea da».

Narrazioak protagonistaren biografia osoa kontatzen du bere hamabi ataletan, eta irakurketan murgildu naizen eran garapen faltaren sentipena biziagotuz joan zait. Izan ere, atala amaitzen ari zitzaidala ohartu naizen bakoitzean pena sentitu dut, gehiago luzatu ez delako. Liburuak, oro har, sentipen horixe utzi dit, adierazi nahi den mezuari garapen luzeagoa eman ez izanaren pena, istorio eder honen aitzakiatan.

Liburu Maite Gurrutxagaren zortzi irudirekin hornituta dator, koloretan, urmargoak eta tinta estanpatua dirudien teknika mistoarekin, harri eternalen antzera. ■ **IMANOL MERCERO**

## Tristeia baina polita

**H**alaxe esan zuen nire ondorian zegoen irakurleak amaitu genuenean: «Tristeia da, baina polita». Oso polita dela esango nuke nik, eta oso tristeia ere bai. Formatu handiko liburu honek album irudidunentzako nazioarteko Compostela saria irabazi du, 2012ko bosgarrenaldi honetan. Lana aho batez saritu dute, eta hau azpimarratu behar da: 256 proposamenen artean aukeratu baitute.

Iruadiak txundigarriak dira, indar handikoak, ikatz-ziriz zuri beltzean eginak, paper lodiarren zakartasuna agerian dutelarik.



‘HEGAZTIK’

- **Idazleak.** Julia Diaz Garrido & Daniel Alvarez Hernandez.
- **Argitaletxea.** Pamiela-Kalandraka.

Irudietan hegazti antropomorfoak proposatzen dira, giza-itxurakoak eta gizakiarena egiten. Gizakiarena egite hori baita, funtsean, obraren mezua eta ondorengo hausnarketa: gure espeziearen ibilbide historikoa errepatatzea, izandako aurrerapen eta kontraesanak agerian utzita, indarra tonu mingarriko kritika batean jarrita.

Irudi eskasia nabari den bezala, testua ere oso laburra da, seguruenik laburregia lanari darrion mezua taxuz adierazteko, eta irakurlearen konplizitatea eskatzen du, abiatutako diskurtsoari falta zaizkion argudioak gehitu eta eskainitakoei jarraibidea eransteko. Hain zuzen hori baita liburu honek duen arrisku handiena, haur literatura delakoan, haur bati kontatzen hastea eta erdibidean konturatzea bizitzari buruzko gakoak mahai gainean jarri gabe zaila dela amaitzea, eta are zailagoa haiez hitz egitea haurra zapuztu gabe. Onena, bakoitzak bere ondorioak isiltasunean ateratzea, ezta? ■ **I. MERCERO**

Antxoka Agirrek jaso du Ramon Labaien, Jesús Egiguren, Juan Karlos Izagirre, Andoni Egaña eta Jon Maiaren arteko solasaldia *Bertsoa eta gatazka politikoa* izenburupean. Politikaz eta bertsolaritzaz aritu dira guztiak, edo bertso politikoaz, edota politikaz bertsoan.



‘DAMUTZEN EZ DIRENAK’

- **Egilea.** Ixaso Araque Barriuso.
- **Argitaletxea.** Elkar.

Augustin Zubikarai bekarekin, *Damutzen ez direnak* idatzi du Ixaso Araquek, Goldman Sachs inbertsio bankuan goi mailako postu bat lortzen duen Stuart gazteari buruz. Hiru pertsonaietako bat da hura. Fikzio hau hiruk osatzen baitute hiruhiritan: Londres, Berlin eta Milanen.



‘MAITAGARRIA ETA DESIOA’

- **Egilea.** Mariasun Landa.
- **Argitaletxea.** Elkar.
- **Ilustratzailea.** M. Gurrutxaga

## Literatura →

## Bizitzaren artea, poematua

Alex Gurrutxaga

Rikardo Arregiren hirugarren poema liburua da hau, 14 urteko (*Kartografia*, 1998) ia erabateko isiltasunaren ondoren datorrena. Bi liburu mota omen daude: irensten direnak eta irensten zaituztenak. Pitiin bat pentsatuta ohar tuko zara, irakurle, zein gutxi diren bigarren motakoak. Hau da bat.

Poema liburu oso sendoa da, borobila, poetika hausnartu eta konplexu baten loratzea. Liburuaren batasuna egituraren ikuskeraren da garbi; hiru atal handi, bakoitza autonomoa nolabait, bai gai aldetik baita bereizgarri formalei dagokien ere, eta era berean guztiz osagarriak hirurak. Gaiak artea, maitasuna eta heriotza dira.

Lehen atalean (*Bizitza=Artea*) poetak artea eta bizitza parekatzen ditu; beharbada biek dutelako balio bera eta, gainera (idazleak esana), biak ala biak eraiki egiten ditugulako. Esan behar da bizitza arruntaz, egunerokoaz ari dela, eta ez zentzu neoplatonikoa. Begira *Poetikak eta poemak* li-

bururako Rikardo Arregik berak idatzi zuena: «Poesiaren zeregina esatea da, mundua esatea, errealtatea esatea». Baina nola esan?: «esatea da kontua eta ez esanahiak bilatzea, batzuetan poesian errealtatearen esanahiek estaltzen dute errealtatea» (19). Horixe da *Bitan esan beharra*-n egiten duena: errealtatea esan.

Bigarren atala (*Amodiozko poemak edo*) maitasunari eskainia da. Zentzu zabalean hartzen da hemen amodioa, bizitzaren oinarrian eta arte gisa hau ere. Lehen pertsonaren presentzia nabaria da, baina ez dago sentimentalkeriarik eta topikoak ironiaz jartzen dira zalantzan, izenburutik bertatik. Bereziki aipagarria da nola lortu duen maitasuna hain fisikoa, hain plastikoa izatea (erotismorik ere bada noski). Adibidez: «Maitasunaren atsegina be-roa / ezagutu duenak / nola beteko ditu / gorputzek utzitako hutsuneak / lagunaren hitz epel eta hitsekin?» (X).

Hirugarren eta azken atalean (*Requiem*) egitura itxi egiten da, heriotzarekin hain justu. Eta heriotza, dio poetak, ez da artea: «Bi-

zitzea arte handia da; / baita maitasuna ere, noski; / baina heriotza ez da inoiz / arte edo artista izango» (*Arterik ez*). Eta ezin esan gabe utzi: oso ederra da *Luis Cernudaren hilobia* poema.

Gaien transzendentzia ikusita norbaitek pentsa lezakeenaren kontra, Rikardo Arregigan ez du irakurleak poeta erromantikorik topatuko. Ez analogia, baizik ironia da haren poetikaren funtsa; eta ez bakarrik umore edo jolasagatik, baizik eta begirada ez-liluratu duelako (jendeari begira, erlazioei, naturari, maitasunari). Alde horretatik, autoironia ager-



## ‘BITAN ESAN BEHARRA’

- **Egilea:** Rikardo Arregi Diaz de Heredia.
- **Argitaletxea:** Alberdania.

tzen da (adb. *Argiaren jainkoa*) eta tradizioari ere begiratzen zaio. Obra batek literatur tradizioa behatu eta harekiko jarrera bat irudikatzea puxtarri bat da ia beti; poetikaren parte ere bada. Rikardo Arregiren poesiak oso aintzat hartzen du tradizio literarioa, eta maisutasunez lantzen, errespetuz eta ironiaz aldi berean (adb. *Fervor de Buenos Aires*). Gurean artean, esaterako, Lizardi hainbat bider agertzen da (*Txolarrreak*, *Autobusetik*, e.a.)

Formalki ere, tradizioa bistan dugu. Poesia neurtua da nagusiki, eite klasikokoa asko (7, 11, 14koak...). Baina formak ez du jarioa behartzen, horren lekuko da hain nabaria den narratibitatea. Hizkera poetikoa argia da, iradokitzailea baina surrealismo eta figura poetiko bihurrik gabea.

Esanda dago, irakurle: maila goreneko obra da *Bitan esan beharra*. Baina, azkenean, Rikardo Arregik berak esana gogoratu behar da: «Axola duena da irakurlearen emozio den ala ez» (*Poetikak eta poemak*). Eta emozioa neurtu ezin denez gero, hemen diok aurrerakoak zure esku.



## ‘EGAN’, 2012KO 3 ETA 4. ZENBAKIAK

- **Argitaratzailea:** Euskalerraren Adiskideen Elkarte.

Pierre Topet-Etxahun buruzko idazlanak bildu ditu batez ere aurtengo udazken-neguko *Egan*-ek: batzuk, berriak; besteak, berrargitaratuak. Jon Etxaide, Jean-Louis Davant, Patri Urkizu, Jean Haritxelhar eta Patxi Salaberri Muñoa dira duela 150 urte hil zen Barkoxeko koblakari buruzko testuen egileak.

## IPARRALDEA

BIZI - EGARRI


Joseba Aurkenerena



## ‘IPARRALDEA BIZI-EGARRI’

- **Egilea:** Joseba Aurkenerena.
- **Argitaletxea:** Hiria.

Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako herritarrekin loturiko oihartzunak, gogoetak, bizierak, ekintza historikoak aurkituko ditu Joseba Aurkenerenaren liburu hau osatzen duten 33 narrazioen irakurleak. «Herri baten egunerokotasunaren oinarrituriko kontakizunak» dira, Hiria argitaletxeak jakinarazi duenez.



## ‘MALTZETA, SOINU BETE BIHOTZ’

- **Egilea:** Juan Luis Zabala.
- **Argitaratzailea:** Euskal Herriko Trikitixa Elkarte.

Soinuaren Liburutegia bildumako bederatzigarren liburu-diskoa Juanito Garate *Maltzeta* soinu jotzaile azkoitiarrari eskaini dio Trikitixa Elkarteak. XX. mendeko trikitiaren izen handietako bat da Maltzeta. Erromerien urrezko garaian, punta-puntako trikitilaria izan zen.

## Haur eta gazte literatura

## Ipuinzaleentzat

Manol Mercero

Ahozko tradizioa oparoa da euskal literaturan. Aspaldian ahaztuxea bagenuen ere, iritsi zaigu beste behin horren lekuko bat: Mayi Ariztiaren *Amattoren uzta*.

Patxi Zubizarretak apailatzaile oso delikatua egin du hamabost ipuinekin osatutako «uzta» hau egokitzen. Haren ekarpenaren gakoak ulertu eta bereziki argitalpen honen mugak eta balioak ezagutzeko, aitzakiarik gabe irakurri behar zaio aitzinsolasa, xera handiz prestatu duena, nire iritziaz.

Ipuin hauen jatorrizko argitaratzailea Mayi Ariztia izan zen, XX. mendean Ipar Euskal Herrian eduki dugun biltzaile garantzitsuena. Aita Donostiak adoretuta, Ariztia andreak maiz argitaratu zituen ipuinak *Gure Herria* aldizkarian, bereziki 30eko eta 50eko hamarkadetan. *Amattoren uzta* 1934an kaleratu zuen, aldizkari beronen laguntzarekin, hamasei ipuinekin, euskal eta frantsesez, bi zutabetara.

Liburu haren berrargitalpen gaurkotuena Elkarrek kaleratu zuen, 1982an.

Ariztiaren bildumako ipuin gehienak, hamar, Josepe Amorenari jasotakoak dira. Amorena ipuin kontalaria zen ofizioz, Sara inguruan arto zuriketan eta hala-koetan ari zirenen nekea arintzeko kontratatua izaten zena. Ariztiarekin aritu zenean, lauogeit urtetik gorako aitona zen.

*Amattoren uzta* Klis-Klasikoak deritzen bildumaren bosgarren titulua da. Klis-Klasikoen xedea klasiko unibertsalak eta euskal jatorriko ezinbestekoak berrargitaratu eta eguneratzea da, kalitate handienaren bermarekin. Hartara, egitasmo horren atzean daude Haur eta Gazte Literatura sustatzeko euskal erakundea (Galtzagorri elkarte), Eusko Jaurilaritza eta itun berezi baten pean batu diren argitaletxeak.

*Uzta* osatzen duten hamabost ipuinetan estilo ugari aurkituko ditu irakurleak, joera batzuk nagusituta ere. Ipuinek kristau fedearen eragin nabarmena dute, bereziki Amorenaren aletan,

ziurrenera gizon horren grina espiritualagatik. Gainera, kontalari horren ipuinek badute laburpen izaera nabarmen bat, ale berdina baina osatuagoak aurreko mendean Ipar Euskal Herrian bildutako bildumetan ia hitzez hitz aurkitzen direlako.

Guztietan aipagarrienak Axularri eskainitako bi aleak dira, gardenki erakusten dutenak nola



## ‘AMATTOREN UZTA’

- **Idazlea:** Manol Mercero.
- **Ilustratzailea:** Maite Gurrutxaga.
- **Egokitzalea:** Patxi Zubizarreta.
- **Argitaletxeak:** Alberdania, Erein eta Igela.

sortzen diren tradizioeko ipuinak pertsonaia historiko baten inguruan, fantasiaz eta ahozko mekanikaz beteak, hiru menderen buruan.

Apaizak, zerua eta infèrnu, hildakoen arimak eta deabrua, horiek dira ipuin gehienetako gertaeren leitmotiva. Gehienak giro baseritar eta feudalean kokatzen dira. Bada Joan Hartzaren aldaera bat, bai eta buru argitasuna eta iruzurra konbinatzen duten hiruzpalau ale ere. Horien artean, harri azpian trabatutako sugea laguntzen duen morroiaren aldaera bat dago, sugearen ordeztu gamelu haragijale bitxi bat daukana.

Ipuin kateatu original bat ere badu, Grimm anaien *Korbes jaina* ipuinaren aldaera ematen duena, oso eskatologikoa eta barragarria, halako umorea duenarentzat.

Liburuak dituen hamasei irudietan, Maite Gurrutxagak giro landatar ohikoari ikusmolde berri bat erantsi dio, klasikoa bezain berritzailea iruditu zaidana. *Hortan fini da ixtorioa.*

## Literatura →

## Kapitalismoa eta giza-harremanak

Alex Gurrutxaga

Itxaso Araqueren lehen liburua da *Damutzen ez direnak*, XII. Augustin Zubikarai Beka lortuta argitaratua. Europako hiri banatan bizi diren Stuart, Andreas eta Naroaren inguruko gertaerak biltzen ditu nobelak; istorioak ez daude lotuta, hiru ipuin luze direla ere esan daiteke, baina hondoko gaia berbera da beti: pertsonen erlazioetan nola eragiten duen gizarte kapitalistak.

Gaur egungo erlazioak daude oinarrian, ahulak eta laburrak, zeinetan banakoek etekin egoistak bilatzen dituzten (ez kasualitatez, Houellebecq aipatzen da) diruak eta sexuak mugiturik: «Nik uste —dio Naroak— Merkatuko Legea gizarte-harreman guztietara hedatu dela» (205). Kapitalismoari begira, egiten dutenaz damutzen ez direnak ditu jopuntuan Araquek, maila sozialean gora egitea eta gero eta gehiago kobratzea beste helbururik ez dutenak: hor daude Berlin go eraikuntza enpresak, Lega Nordeko politikariak, Goldman Sachs bankua, eta haietan lane-

an ari den jendea, badakiena «arrakastarako bidean duintasuna oztopo bat baino ez dela» (122).

Ez gara ari, ordea, neoliberalismoaren kritika sinplista batez, ikuspegi dialektiko batez baizik. Hain zuzen, nobelaren alderdi sendoena errealitatearen konplexutasuna islatzeko eran dago; begirada jakintsu, zorrotz eta sendoa ageri du idazleak. Protagonistek jendilajea dute inguruan, hipokresia eta zekenkeria, eta eurak ere sistemaren parte dira ezinbestean: baina nola jokatzeko dute? Oker jokatzeko errua sistemari edo egoerari egotzea da aukera bat, eta bestea damutzea, errua norbere gain hartuta. Kinika hori bizi dute protagonistek, eta damua gizatasun keinu gisa ageri da, zorionerako eta askatasunerako lehen pauso gisa.

Formalki fragmentarioa da nobela. Istorio bakoitzak du bere narratzailea eta horiek erabiltzen duten pertsona gramatikala ezberdina da. Gainera, kapitulu guztietan dago pertsonaia bakoitzari loturiko pasarte bana; esan behar da horrek ez duela irakurketa zailtzen, banaketa argia baita. Edonola ere, ez zait iruditu

egitura horrek ezer ematen dionik istorio bakoitzari eta eztabaida daiteke nobela izaerarik eskaintzen duen. Beste alde batek, *showing* deitzen denaren falta sumatu dut pertsonalki, alegia, narratzaileak Urliia klasista bat dela kontatzea baino gehiago, neronek ikustea haren portaeran halakoxea dela; potentzia filosofiko handia du testuak, baina narratzaileak gaia gure ordezturikatzeko duen pasarteetan, ira-

kurketa erraztu eta interpretazioari espazioa jaten zaio.

Estiloa dela eta, hizkera dotorez idatzia dago nobela oro har. Zenbait atal deskribatzailetan estilo poetiko fina antzematen da, eta baita pasarte ironiko zenbaitetan ere («Deutsche Bank: 900 euroko larru-pasada», 203). Aldiz, elkarrizketatan sinesgarritasun arazoak daude: hizkerak ez dira bereizten, eta molde oso formala eta hanpatua du hainbat pertsonaiak lagunarte giroan (Andrea sek, Antonellak, eta abar).

Eta kritika soziala funtsezkoa denez, azken ohar bat, irudi bailezake nobelaren irakurketa zaila edo gogorra dela: ez da hala, espazioak direla-eta. Ziurrenik eleberririk islatu nahi duenerako ez da beharrezkoa gertaera nagusiak Londresen, Berlinen eta Milanen kokatzea (unibertsaltasunaren aitzakiak ez du balio), baina horrek erabat baldintzatzen du nobela; izan ere, kritikaren objektuak kanpoan kokatzen direnez (Italia, Alemania eta Erresuma Batua gune neutroak dira guretzat), irakurlea ez da identifikatua sentitzen eta ezta deseroso ere.



#### 'DAMUTZEN EZ DIRENAK'


■ **Egilea:** Itxaso Araque.  
■ **Argitaletxea:** Elkar.



#### 'BETERRIKO LIBURUA', 56. ZENBAKIA

■ **Argitaratzailea:** Larramendi Kultur Bazkuna.

«Garai berrien zain, gero arte!», dio *Beterriko Liburua*-ren 56. zenbakiko azalak. Diru laguntzen jaitsiera dela eta, aldizkaria argitaratzeari uztea erabaki baitute arduradunek, eta 111 Akademiaren jarraipena bera ere zailantzan dago. Miren Asiain, Alberto Ladron Arana eta Arrate Egaña dira elkarrizketatuak.



#### 'BERTSOLARI', 88. ZENBAKIA

■ **Argitaratzailea:** Bertsosaleak Kultur Elkartea.

Ametz Arzallus Xilaba Ipar Euskal Herriko Bertsolari Txapelketaren irabazleari egindako elkarrizketaz gain, irratigintzari eta Arabako Bertsosale Elkarteari buruzko erreportaje bana eskaintzen du *Bertsolari*-k, eta baita Eneko Dorronsoro Xalbadorri buruz egiten ari den filmari buruzko informazioa ere.



#### 'KARMEL', 280. ZENBAKIA

■ **Argitaratzailea:** Euskal Herriko Karmeldarrak.

Luis Baraiazarraren *Balendin Aurre-Aspiz olerkariaren jaiozako mendeurrena* (1012-2007) artikulua plazaratu du *Karmel*-ek. Iñaki Martiartu, A. Olea, Roman Garmendia, Joseba Aurkenerena, Amaia Iturbide, Joxemari Urteaga eta Ana Urkizaren testuak ere badira; eta Friedrich Holderlinen poemak, Luis Arostegik itzuliak.

### ↓ Haur eta gazte literatura

## Urrezko kaiola

Imanol Mercero

Etterik gabe bizi direnak literatura gaia izaten dira maiztasun erregular batekin. Urruti jo gabe, 2011ko Euskadi Saria irabazi zuen Miren Agur Meaberen *Errepidea* narrazioak karabana batean bizi ziren amaialaba batzuenak kontatzen zituen.

Halako gai sentikorra jorratzeko orduan ikuspuntu kritikoa erakusten da batzuetan, bestetan erromantikoa, baina beti gertatzen da labainkor. Gauzak nola diren, dugun krisi garai hauetan ahoz aho dabil halako egoeraren drama.

Ruiz eta Eibar literaturgileak ausartu dira bada gaia ukitzera, bakoitza bere ofiziotik, *Gure etxea* deritzon album ilustratu honekin.

Liburua etzana da, tamaina er-tainekoa (31x22 cm) eta koloretan dator.

Liburuak dituen 36 orrialdeetan formatua errepikatu egiten da, bai irudien konposaketan, bai

narrazioaren egituraketan, bai mezuan. Bi-orriko bakoitzean, ezkerretara testua dugu paper eta kartoia irudikatzen duen hondo baten gainean, eta eskuinetara ilustrazioak daude, testurik gabe. Zehaztu behar da eskuineko ilustrazio horietan irudiek ez dutela plano orokorrik eskaintzen; alderantziz, mintzagaiaren xehetasunak ematen dituzte, zatiak planoz kanpo nahita utzita. Merez du aipatzea Eibar ilustratzailearen lana ere, harengan ohikoak diren irudi gozoetatik alden du nahiko balu bezala agertzen dela, esperimentazioari tartea eskainiz.

Esanda gelditu da gaia etxegabeak direla. Etxegabe arloetako zehazki, tetrabrik kutxatik ardoa edaten duen bizardun bat ageri baitzaigu irudietan. Baina, haur batekin ageri da. Eta haurra narratzailea da.

Testua esaldi laburretan ematen zaigu, dosi txikitik, eta haurrak bere bizilekuaren deskribapena era tranpatian egiten du, ezustekoa amaierarako ezkuta-

tzen denean egiten den eran. Hala, bere «etxeak» igerilekua, lora-egia eta garajea dituela esaten digu, bai eta hondartza ondoan dagoela ere. Haurrak halakorik esaten ez badu ere, amaiera alde-para parke batean kartoiaren artean bizi dela ikusten dugu, hori bai, zeharka, arestian aipatu dugun plano orokorraren faltagatik.

Obra guztia ongi baino hobeto kalkulatu dago irakurleak aberatsen luxuzko etxeak aldera ditzan protagonistak duen bizile-



#### 'GURE ETXEA'

■ **Idazlea:** Ruben Ruiz.  
■ **Ilustratzailea:** Eider Eibar.  
■ **Argitaletxea:** Erein.

## Literatura →

## Festa tartarekin, baina zu gabe

Alex Gurrutxaga

Castillo Suarezen azken poema liburuaren irakurketa, ezer baino lehen, sorpresa ona izan da. Sorpresa, barruan ez dudalako aurkitu liburuaren itxura ikusita espero nuena. Azalean ezpainetako barra gorria dator; kontrazaleko poeman (*Ez naiz inoren ama*) gizartearekiko leku-hartze bat da klabea, agerian uzten duena emakumeari egotzi izan zaion ama rola deseraikitze nahia. Poema fina izan arren, feminismoak 70etatik egin duen aldarria da poetak bere egiten duena («Inori ez entzuteko umeak ekartzeko etorri naizela») eta; kontrazalerako interesgarria izan daitekeen arren, ez da poema horren tonua liburuan nagusitzen dena; berak esana da: «Nik ez dut emakumezkoen literaturari buruzko gogoetarik egiten, eta ez dut egin nahi». Eta garrantzitsuena, esango nuke poema klase horrek ez duela agertzen irakurleak liburuaren barruan aurkituko duen ahots poetikoaren izaera.

Lau atal ditu liburuak, aipu barenekin hasieran, eta bi gai nagusi:

si: bakardadea eta desamodioa. Horrez gain, gaiak bustitzen dituzten bi baldintza daude: feminitatea eta idazletza.

Begirada poetiko indartsua du poetak: ironikoa da, garrantza, eta mingarria ere bai maiz. Hain zuzen, lehen ataletik bertatik suntsitzen du urtebetetze festaren irudi liluragarria; festaren aurrean bakarrik dagoen pertsona jartzan digu, festara gonbidatu ez dutena. Modu efektiboan adieraziak daude munduan bere tokia aurkitzen ez duenaren abandotua eta desolazioa. Halaxe ageri da poeta, aparte eta tokia aurkitu ezinik («Gure askatasun eremua erraierara murrizten da», 22); ulergaitz eta bakarrik («Guk, bertartean, giltzak nahita galtzen ditugu, zure etxean har gaitzazun iluntzean», 52); eta ihesa (idazkuntza) mingarri zaio («Nire samintasunak enbarazu egiten du. Batzuetan, baina, konbentzitu egiten dut eta poema bilakatzen da», 51).

Bakardadeari lotuta maitasuna ageri da, edo zehatzago, desamodioa eta maitasunerako ezina. Esanguratsua da Iñigo Aranbarriren aipua: «Maitasunari buel-

ta emanda ez da gorrotoa agertuko, banatzea baizik. Bereiztea, ez herra». Maitasunaren ifrentzua ere bada, beraz, bakardadea. Aipatzekoa da maitasunaz ari denean «zu» bati mintzo zaiola ni poetikoa (poetak lehenago ere egin izan duen bezala): «Zu maitatzeko giroa dago, baina nahiago dut beste baten tokian egon» (29).

Formalki, Castillo Suarezren poesia narratiboa da, mezua ematen zuzena, ornamentazio gutxikoa eta hizkera arruntan hondua. Nabaria da, halaber, po-

emak ixteko era, aforismo itxurako esaldi borobiltzaileekin («Leku gehiegi daukat/ eta sobera gauza botatzeko», 59). Bere bereak dituen ezaugarriekin batera, *Urtebetetze festa*-n formari buruzko gogoeta agerikoa da; izan ere, poema gehienak narrazioak bezala justifikatuta daude. Egia da Castillo Suarezren poesiak ez duela hainbeste jarraitzen lerroen erritmoa, baizik eta esaldiarena, eta horregatik, poemen erritmoaz jabetzeko, ez dagoela aparteko alderik. Hori bai, badago pentsaketa bat poesia narratiboren eta prosa poetikoaren mugaz.

Kontrazala irakurrita, sorpresa positiboa izan da, bai, *Urtebetetze festa*-ren irakurketa. Izan ere, iruditzen zait Castillo Suarezren poemen puntu indartsua autoironian dagoela (nahiz berak esan ez duela nitasunetik idazten), distiratsua dela ironia garrantza ni poetikoari berari zuzentzen zaionean. Intentsitate handiko poesia egiten du orduan eta irakurlearengan sentipen latzak sortzeko gai da: «Zain nauzu urtebetetze tartari begira./ Aulki hutsak daude inguruan» (71).



## ‘URTEBETETZE FESTA’

- Egilea: Castillo Suarez.
- Argitaletxea: Elkar.

## HAMAIIKA BIRJINA



OREN LIBURUA

## ‘HAMAIIKA BIRJINA (OREN LIBURUA)’

- Egilea: Frai Joxe.
- Argitaratzailea: Frai Joxe (egile editore).

Ezinez sinatutako eta egile ezagunik gabeko poema liburu autoeditatua da *Hamaika birjina*, erreferentzia erlijioso ugariz hornitua, liburuaren atalen izenburuetan ere igartzen denez: *Matutinak, Prima, Tertzia, Sexta, Nona, Bezperak, Konpletak* eta *Egunaren amaierakoak*.



## ‘HAUSNART’ ALDIZKARIA, 2. ZENBAKIA

- Argitaratzailea: Lapiko Kritikoa.

Honako hau da *HAUSNART* aldizkariaren egileek 2. zenbakirako prestatu duen eskaintza: Mario Zubiaga, Jakue Pascual, Zaloa Basabe, Imanol Galfarsoro eta Laura Mintegiri egindako elkarrizketak; eta Unai Apolaza, Michael J. Kelly eta Imanol Galfarsorok idatzitako artikulak.



## ‘HIRU ILARGI LAURDEN’

- Egilea: Ernesto Prat Urzainki, Little.
- Argitaratzailea: Metaziri.

«Eleberri hau estatuaren jazarpenari ebatsitako minutu bakoitzarekin egin da, sasiko egun unagarrietan, premiaz, ihesaldi itoan ilargiari begira», dio liburuaren kontrazalak. Elizondoko gaztetxean aurkeztu zen, urtarrilaren 11n. Baztango hiru herritan dago salgai: Erratzun, Arizkunen eta Elizondon.

## ↓ Haur eta gazte literatura

## Fabula 2.0

Imanol Mercero

Tapa gogorreko edizio koloredun txukunetan argitaratua, txitxarraren eta inurriaren fabula ezagunaren bertsio modernoa dugu hau, fabuletan agertzen zaizkigun esteotipoak gainditu eta istorio sakonago eta luzeago bat eskaintzen duena.

Kontaketak 32 orrialde hartzen ditu, horietatik erdiak testuari eskainiak eta beste erdiak irudiei. Narrazio irudidunetan ohikoa den eran, irudiak testuaren morrontzan daude, eta kontaketaren hariari testuingurua ematen diote, fokua ezartzen laguntzeaz gain.

Irakurketa arineko testua da, elkarrizketa eta esaldi laburrekin jositua, menpeko esaldirik apenas duena eta puntuazioa artezki dabilena, jariatutasunari bidea ziurtatzen edo.

Umoredosi handitan kontatzen zaigu nola Marikanta deritzon txitxarrak amarru bat asmatzen duen inurriak engainatu eta

negua eurekin igarotzen utz diezaizoten. Inurrien Abesbatzen. Lehiaketa bat izango dela kontatzen die eta, intsektu langileen harriduraz baliaturik, bere burua laguntzeko eskaintzen die, inurriak kantuan abilak izan, batere abilak ez direlako. Baietz esaten diote —ulertzekoak diren zantzak alde batera uztea lortzen dutenean— eta negua entseguetan pasatuko dute, gogor saiaturaz, baina ez oso emaitza onarekin.

Marrakziak umore tonu berean eraikitako plano pikatu orokorrrak dira. Inurriak obretako beharginen kaskoarekin agertzen dira eta Marikanta, nola ez, «ederra» dago. Kolore grisaren gainean erantsitako horia nabarmentzen da intsektuetan, eta grisaren gainean ezarritako berdea eta urdina begetaletan. Oso une jakinetan gorria erabiltzen da begetalak (orbela, udaberriko lilia) edota intsektuak (zizareak) adierazteko. Protagonista soineko eta pamela hori-gorri karratudun karrankariarekin agertzen zaigu, soilik diva bati zilegi zaion gisan.

Testuan zehar pertsonaien izaeraren berri ematen zaigu eta izaera horren gainean narrazioaileak zeharka balorazioa egiten du. Esaterako haxe esaten da txitxarraz: «Marikanta txitxarrak ez zuen ia ezertan pentsatzen: beharbada horregatik abesten zuen hain ongi» eta hau ere bai: «Eta gogoa, txitxarren kasuan, legea izan ohi da». Eta hau, ironia gainezka dariola, inurriez: «Egia esanda, oso gutxitan izaten zuten

aukera beren balioa azaltzeko, zein interesgarriak izatera helzitezkeen azaltzeko, beren dohaiak eta bertute ezkutua argitaratu ekartzeko...». Eta beste hau amaiera aldera: «Gainera, artez bete zuela inurri triste eta aspergarri batzuen bizitza pentsatzen zuten [Marikantak]».

Liburuaren amaieran gaudela, Leonor sorgin-orratzak hitza hartzen du, kontzientziaren ahotsa bailitzan: «Ez al dizu lotsarik ematen langile gaixo horiek engainatu izanak?» Eta hala eginik txitxarrari eta narrazioaileari euren burua zuzitzeko aukera ematen die: «Harrezkero, zizareek diote inurritegi hartako inurriek lehenago adina lan egiten dutela, baina poz handiagoz (...). Eta bada ordutik txitxarrak gozoago hartzen dituztela esaten duenik ere».

Inondik ere, fabula Samaniego-tarra gainditzen duen obra da hau, irakurleak, duda gutxi, atseginago hartuko duen *fabula 2.0* joeraren emaitza gogoangarri bat.



## ‘MARIKANTA ETA INURRIAK’

- Idazlea: Mariasun Landa.
- Ilustrazioak: Jokin Mitxelena.
- Argitaletxea: Erein.

## Literatura →

## Zatiek bat

Alex Gurrutxaga

Hainbeste nobela idatzita eta haien sona saiakere-na baino handiagoa izanik, akaso diskrezio gehiagorekin pasatzen da Anjel Lertxundi saiogilea. Aldarrikà dezagun.

Hainbat obra interesgarri idatzi ditu eta Espainiako Saiakera Sari Nazionala (2010) irabazia da. Modu askotan landu du saiakera Lertxundik: gogoratu, esaterako, hain desberdinak eta hain onak, *Piztiaren izena* (1995), *Mentura dugun artean* (2001) edota *Eskarmentuaren paperak* (EP) (2009). Oraingoan, azken horren ildotik jarraitu du, liburuaren azpitu-luak dioen bezala, *minimalian*. Paper-festa antolatzen ez du lan gutxi, aidanaz. EP-ekin dituen antzekotasunak direla eta, «haurrideak dira, baina ez bikiak» esan du Lertxundik berak; hain zuzen, testu klase berbera bildu du bietan, eta gai eta egitura alde-tik ere badago parekotasunik.

Julio Ramon Ribeyrok *Prosas apátridas* (1975) liburuan sartu zituen aberririk ez zuten testuak. Lertxundi honela mintzo zen EP-

en liburu horri buruz (*Paper-festa*-n ere aipatzen du liburua): «Ez dira prosazko poemak. Ezta egunkari bateko hausnarketak ere. Ezta zirriborroak ere. Oso testu laburrak dira; testu bakoitzak bere batasuna du...» (EP, 138). Antzeko zerbait esan daiteke Lertxundiren lanaz, baina perutarra- ren lanean ez bezala, adabakiak josteko borondatea agerikoa da hemen. «Bateratasun zatikatua» duela zioen Mikel Ayerbek EP-egatik; *Paper-festa*-gatik ere esan daiteke eta, gainera, kasu hone-tan sendoagoak dira liburuari au- rre- eginarazten dioten hariak (lau gai eta lau atal nagusi, EP-eko zortzien aldean), eta, tarteka, segidako adabakiek ere erlazioa flute.

Atal berritzaileena lehena da akaso (*Lubakiak, barne-muinetan*), gerraren inguruko hainbat pasadizo eta gogoeta biltzen di- tuena. Esango nuke egiazat ema- ten direnak zalantzan jartzeko asmoa dagoela, etikaren espa- rruan mugituz hainbatetan, bar- ne-muinetan gertatzen diren ga- tazkei begira batez ere: hor daude identitatea (*Identitatea*), aberria

(*Aberria buruan*) edota memoria (*Memoria eta kaleak*). Bigarren atalak (*Bizitza hizpide*) bizitza arruntaren kontuak lantzen ditu, eta hirugarrenak, aurrekoaren ifrentzua balitz bezala, bizitzaren eskarmentuari literatura jartzen dio aurrean. Kontrasteak ongi funtzionatzen duela esango nuke. Azken atalean, *Heriotza, oinazea- ren aita* da gai nagusia (EP-n beza- laxe), baina baita ironiaz lantzen diren denbora, gaitza eta erlijioa ere. Gai horrek itxi egiten du nola- bait liburuaren ibilbidea: gerra, bizitza eta literatura, heriotza.

Aipagarria da testuen forma aniztasuna: azalpen motzak



## ‘PAPER-FESTA’

- Egilea: Anjel Lertxundi.
- Argitaletxea: Alberdania.

nahiz luzeak, elkarrizketak, ai- puak, mikroipuinak, zerrendak, apunteak, eta abar. Bestalde, nar- rratzaile desberdin asko dago: haurrak, gezurriak, eroak, eta abar. Formalki ez ezik, estilo alde- tik ere denetarik aurki daiteke: narrazio tragikoak, umoretsuak, ironikoak, baita kutsu kafkarra duenik (adb. *Zoruan zeru*) edo Raymond Queneauren estilo ari- keten gisara (aditzik gabe edo a- rik gabe) osaturik ere. Halere, ne- kez aurkituko du irakurleak jolas edo artefaktu hutsa den atalik.

Lertxundiren saiakera liburu- tan, idazle behatzailea ez ezik, irakurlea eta pentsalaria ere nabar- mentzen dira: testuan zehar lite- raturari eta errealtateari buruz- ko gogoeta ezin hobeki lotzen di- ra. Badaude zati ahulak, eta liburuaren arriskua horretan da- go, hain zuzen: puskaren batek hotz utziko du irakurlea, anekdo- ta sinpleegi bat irakurri balu be- zala. Alabaina, oro har, gaiak lan- tzen eta mezuak transmititzen li- buruak funtzionatu egiten du: go- goetak modu labur, eragingarri eta dotorean transmititzea luma trebe eta zailduaren emaitza da.

## ↓ Haur eta gazte literatura

## Nik ez nuke irakurri gabe utziko

Imanol Mercero

D enok ezagutzen dugun *Txanogorritxo* ipuin klasikoaren berrikus- pen batekin etorri zaizkigu orain- goan Txalapartakoak.

Irudiaren erabilera asko zain- tzen duen Txo bildumaren ba- rruan argitaratua dator, ohikoa duen 25 x 23 cm-ko tamainan eta 32 orrialdetan. Aurreko batean (2012-10-14), sakondu genuen Txo bildumaren azterketan, *Magia* lanaz ari ginela; nahi duenak jo beza hara.

Oraingoan, ilustratzaile lane- tan Mikel Mardones dugu, ofizio- an oihalean egindako margolane- kin era «autodidaktan» trebatua; euskaraz, lehén obra du hauxe. Gidoilari ari den Ines Almagro- ren *opera prima* da hau.

Txanogorritxoren ahotik egin- dako ipuin klasikoaren berrikus- pena proposatzen digu liburuak. Narrazioan zehar, neskatoak ipuina nola aldatu dioten esan eta berresaten du, irakurlearekin partekatzen duen bakarriketa batean.

Akzioa ingurune elurtu batean gertatzen da, sakontasun bisual handia duten bi-orriko irudietan, ikatz-arkatzaren gainean ezarri- tako olio margoekin; bolumen as- korekin, eremu-sakonera ere bai, eta nabardura gutxiko irudi bu- katugabeetan eraikia.

Esku artean duzularik, lehen- lehenik irudiek erakartzen dute, isurtzen duten indar basatiare- kin. Askoren artean bat esatear- ren, hamazazpigarren orriko otsoaren irudia ahaztezina da, lausotasunean dagoen piztia, sùsmatu besterik egin behar éz dena haren beldur izateko. Kon- tuan hartzekoak dira, halaber, narrazio bisualaren teknikan di- tuen proposamenak: esaterako, 18-19 orrialdeetako irudietan, Txanogorritxoren begiradak gi- daturik sortzen den triangeluka- tze berezian; baina baita orrialde berberetan hontz zein txerri xe- lbre horiek irakurlearen alter ego gisara jokatzaren duten paper bere- zian; egia esan, narrazioan zehar agertzen diren alter ego gisako animalia eta gainerako piztiak, zeregin anekdotikoa dutelarik

ere, obraren balorazioaren onta- sunak goraiatzeko nahigabeko hauspo bihurtzen dira. Eta aipa- garria da irudien bidez ezohikoe- na era natural batean erakusteko duen gaitasuna ere, esaterako, 26- 27 orrialdeetan lore-belarren pre- sentzia, amonaren etxean, hain natural eta bertako; ahaztu gabe, *apatagarri* gisara dauden azalen barrualdeko irudien bihurrikeria maila gorena, bere burua Txano-



## ‘TXANOGORRITXOREN ESKULARRUAK’

- Idazlea: Ines Almagro.
- Ilustrazioak: Mikel Mardones.
- Itzultzailea: Arkaitz Goikoetxea.
- Argitaletxeak: Txalaparta eta OQO.

gorritxotzat daukan edonoren- tzako *ispilu* perfektuak.

Baina testuak du irakurlea au- rrera eramateko ardura, baita al- bumetan ere, eta hemen lortu du- telakoan nago.

Almagrok narratzaileari fun- tzio neurritsua esleitzen dio, hitz gutxikoa eta baloraziorik egiten ez duena. Funtsez, pertsonajaren sentimenduei eta ahotsari bidea emateko dago narratzailea. Aldi berean, pertsonaia nagusiak ba- karrizketan dihardu, irakurlea- rekin zeharkako elkarrizketan. Ahotsaren eta onomatopeien ozentasuna tipografiaren hanpa- durarekin lortzen da, bai eta le- rroz kanpo ere, kokapen espazial ezohiko bilatuta.

Irakurketa testuaz gainekoa bihurtzen da, ezinbestean, ira- kurketarako zein narratzaileari joan-etorriko hausnarketekin osatu beharrekoa, eta, horregatik ez ezik, hainbat irudiren gogorta- suna kontuan hartuta ere, zortzi bat urtetik aurrerako irakurleent- zako obra dela ematen du.

Nik ez nuke irakurri gabe utzi- ko.



## ‘ZER DA HIRUGARREN ESTATUA?’

- Egilea: Emmanuel Joseph Sieyes.
- Itzultzailea: Irati Bereau Baleztena.
- Argitaratzailea: Euskal Herriko Unibertsitatea.

Hiru galdera planteatu eta eran- tzuten ditu liburuak: 1) Zer da Hi- rugarren Estatua? Dena. 2) Zer izan da, orain arte, ordena politi- koan? Deus ere ez. 3) Zer eska- tzen du? Zerbait izatea. Christ- ne Faurek idatzitako sarrera du.



## ‘ESERLEKU HUTSA’

- Egilea: J.K. Rowling.
- Itzultzailea: Estibalitz Lizaso.
- Argitaletxea: Erein.

Harry Potter pertsonaia ezagu- na sortu zuen idazleak, J.K. Row- lingek, helduentzat idatzitako lehenengo eleberria argitaratu du, euskaratuta, Elkar argitale- txeak. Barry Fairbrother 40 urte berritan hil da, bat-batean. Ha- ren heriotzaren albiste sekula- ko kolpea izan da Pagford herri txikiko bizilagunentzat.



## ‘IDAZLEEI GALDEZKA’

- Koordinatzailea: Patxi Salaberri Muñoa.
- Argitaratzailea: Euskal Herriko Unibertsitatea.

Patxi Salaberri Muñoak idatzi- tako sarrera baten ondotik, guz- tira 138 erantzun biltzen ditu liburuak, besteak beste: 46 idazlek hiru galderari emandakoak. Honako hiru galdera hauek: «Zergatik idazten duzu?»; «Idaztea noraino da librea?»; eta «Zein autore/obra dituzu gogokoen?».



## Literatura

## Literatura hamaika eskutara

Alex Gurmuxaga

**T**xantreako Euskaldunen Biltokiak 10. urtemuga zela-eta liburua argitaratu zuen iaz. Ospakizun doinuz dator *Hitza bide, bizia xede*, baina baita aldarrikapen gisa ere, ez baita manifestu makala izenburukoa: hitza (euskara) bidea da, eta helburua haren bidez bizitzea, norbanako eta herri orok baitu bere hitza.

Literatur bilduma da *Hitza bide, bizia xede*, baina nekez laburtu daiteke hitz batean zeren bilduma den. Izan ere, poesia, narrazioa, saiakera, epigrama edo hiztegia ditu barnean (baita Polo Gartziaren marrazkiak ere). Norbaitek esan lezake denetarik pixka bat izanik ezerk ez duela erabat aseko, eta gerta daiteke, baina pluraltasun horretan dago liburuaren berezitasunetako bat.

Ohikoa ez den beste ezaugarri bat ere bada: «Antologia bat da —idatzi du sarreran Fernando Reyk—, gure elkartarekin edo gutako batzuekin harremana izan duten idazleek osatua. Haiekin bat, gure auzoan idatzi zaleak diren beste batzuei ere egin

nahi izan diegu tokia». Horrela, Bernardo Atxaga, Aingeru Epaltza eta Miren Agur Meaberen testuen ondoan aurkituko ditu irakurleak Kruzi Barrena, Fertxu Izquierdo eta Arantza Santestebanenak. Esan behar da testu guztiek ez dutela maila bera, edo areago, alde handiak daudela. Baina bildumaren maila epaitu behar banu (eta hala behar dut) esango nuke bere helburua lortzen duela, alegia ahal bezain anitza izatea eta, hortaz, bilduma txukuna dela.

Lau atal poesia dira, laurak ere oso tonu desberdinekoak. Atxagaren testuak (*Egunak badoazi*) denbora du gai, eta idazlearen poesiak hain berea duen narratibitate eta kadentzia erritmikoa (paralelismo, errepikapen eta zerrrendekin). Castillo Suarezren *Be-tetzeko moduko ametsak* prosa poetikoa da, bere azken liburua-aren ildokoa. Joxemari Sestorainek *Poema solteak* itzuli ditu eta haiei buruzko ohar interesgarriak eman. Azkenik, Kruzi Barrenaren bi poema daude; kutsu erromantikoa dute eta neroni ez naute ase, topiko eta klitxeetan oinarritzeagatik.

Gainerako testuak narrazioak dira, eta hauen tonu eta gai aniztasuna ere nabaria da. Esaterako, Aingeru Epaltzak maki brigada bateko partaide baten abentura kontatu du *Zangoak bezain motel* ipuinean. Oso ongi funtzionatzen du narrazioak, ederki girotua dago eta tentsioari amaieraraino eusten dio. Miren Agur Meaberen *Plusaren tentazioa* kontakizuna primizia bat dugu, aurtan aterako den *Kristalezko begi bat* nobelaren zatia: sentsibilitate apartekoa transmititzen du testuak suizidioaz eta norberak bizitzan duen lekuaz gogoeta egitean. Beste bat aipatzearen, Fertxu Iz-

quierdok Tarzan jarri digu hiriko junglan: absurdua eta traszendentala ezkonduz, Chicagotik abiatu eta Mexikon zehar, *travelling* trepidantea da *Bizitzaren bueltak*.

Bestalde, narrazioen artean bada testu ezohikoagoak ere. Xabier Mendigurenek Maria Magdalakoaren Ebanjelioaren pasarteak idatzi ditu. Ideia orijinala da eta landutako gaiak interesgarriak (prostituzioa, generoak, sexua, e.a.) baina esango nuke emaitza tesi-ipuina teorikoegia dela. Xabier Olarrak, berriz, Twitter-i buruz (erlijio berri horretaz) testu multiformea osatu du, oso ongi funtzionatzen duen umorez gainezka. Azkenik, Joseba Sarrionandiak epigramaren genero klasikoa landu du, modu distiratsuan egiazki: politika eta gizartea du jopuntuan, tonu ironiko eta umoretsuz.

Ikusten duzunez, testu gehien maila altuaz gain, bildumak aniztasun paregabea du forma eta gaietan. Idazle bakoitzaren estiloari esker, literaturaren ahala eta aukera mugagabeak agerian daude *Hitza bide, bizia xede*-ren orrietan.

Hitza bide, bizia xede



## 'HITZA BIDE, BIZIA XEDE'

■ **Argitaratzaileak:** Txantreako Euskaldunen Biltokia eta Pamiela.

## ↓ Haur eta gazte literatura

## Lezioak bizitzari buruz

Imanol Mercero

**J**oan Mari Irigoienek bi liburukitan banatutako haur eta gazteentzako poesia bilduma argitaratu berri du *Hitza gurpila* izenarekin. Aurkezpenean emandako azalpenen arabera, bildumako bi liburua bilobak gogoan idatzi ditu, euren omenez eta euren etorkizun bateko irakurketa izan daitezkeen.

Bildumako lehen ale hau batik bat pieza laburrez osatuta dago, salbu lau orrialdeko luzera duen ipuin bat eta orrialde pare bateko dozena-erdi poema. Hurrenkera ez da gardena, atal edo banaketarako sistemarik ez dago, ezta aurkibiderik ere. Testuak elkarren segidan daudenez eta datorrena zertaz eta zein tonutan ariko den jakin ezin denez, irakurleak sedukzioarako irekita egon behar du, idazleak proposatutakoa onartzeko prest.

Zeren liburu hau ezer baldin bada, sedukzioaren, probokazioaren eta jolasaren bidez zabaldutako mezu bilduma baita.

Poemak lau multzotan bana daitezke, gaiaren arabera: hizkuntza jolasak, probokazioa, bizitzaren aurreko ohartarazpenak, salaketa sozialak. Bistan da lehen bi gaiak «arinak» direla eta beste biak arau-igorleak, etikaz dihardutenak.

Hizkuntza jolasak oso sofistikatuak dira eta maila goreneko bilduma osatzen dute: «Hitza bere gurpilean/jira eta bira:/batean izan daiteke harri-jasa,/bestean solasa,/jolasa...», erritmoan eta kakofonian: «Koko hori kolokan zagok,/ eta kontuz:/ Koko hori, izan ere, ez duk kukua: (...)»; bai eta fantasian ere: «Dena gerta daiteke/ ametsen/ denborarik gabeko/ denboran: (...)».

Probokazioa bilatzen dutenak ez dira motz geratzen. Eskatologikoak: «(...) Andres Baldres baitut ikusten nik:/ atera du gordele-kutik pitilina, (...)»; «Galtzak jaitsi ditu/ kakontzi urduriak:/ inguru hartu du/ euli-euriak...». Erokeriak: «Do-re-mi:/ burutik nago ni!» Era guztietakoak: «(...) Eta orain, Jordi/ hordi hadi;/ hordi ha-

di herori ere,/ Eduardo/ eta sartuko dizkizuet ipurtzuloan/ bi petardo...».

Bizitzaren aurreko ohartarazpenak: kotxeak: «Bide batean bi kotxe (...) joan dira mendian behe-iraulka (...); tabakoa: «(...) marlboro ez bada, chester;/ hilko haiz laster»; norbere buruaz: «(...) Bizitzari, ordea,/ beti egin behar zaio aurre/ nork bere kemenaren asto-



## 'URRUNEKO MOTORRAK MILA ZALDI'

■ **Idazlea:** Joan Mari Irigoien.  
■ **Ilustratzaileak:** Antton Olariaga.  
■ **Argitaletxea:** Elkar.

ari arre!» Eta askoz gehiago: elikadura, zarata, ikasketak, alkohola...

Salaketak ere amaigabeak dira. Polizia eta gazteak: «(...) Gidari gaztea ongi zihuan, (...) horregatik geldiarazi baitute mutila:/ tximaluze bat delako (...)»; aberastaren banaketa: «(...) ni miserian bizi naiz,/ eta zuk daukazun erdia/ niri eman behar...»; biolentzia matxista: «Gizonak/ sarritan,/ gizon izateko,/ emakumearen gainetik dagoela erakutsi behar (...)». Eta beste asko.

Etengabeak kultur eta gizarte mailako erreferenteak, asko garai batekoak (Van Poppel, J. M. Peman, I. Bergman,...) edota kultura maila jasokoak (Antigona, Goya, Bach,...) eta ibilgailuen presentzia zer esan, liburuaren izenburuan hasten dira-eta.

Hainbesteko erreferente eta esan-behar dituen obra izanik ia nahitaezkoa da heldu batek kudeatzea haurren irakurketa.

Baina guztiaren gainetik, hori bai, goza ezazue hizkuntzaren maisu honekin, merezi du eta.



## 'FEMINIST AGENDA EUSKAL NARRATIBA GARAIKIDEAN'

■ **Egilea:** Gema Lasarte Leonet.  
■ **Argitaratzailea:** Euskal Herriko Unibertsitatea.

*Protagonista femeninoen ezaugarriak eta bilakaera euskal narratiba garaikidean* tesia idatzi zuen Gema Lasarte Leonetek, eta tesi hori argitaratu du orain EHUK. Emakumeek idatzitako euskarazko eleberrietako pertsonaia protagonista femeninoak aztertu ditu Lasarte Leonetek, 27 nobela harturik onarri.



## 'FAKIN XOKONA'

■ **Egilea:** Oier Goitia Abadia.  
■ **Ilustrazioak:** Iker Moreno.  
■ **Argitaratzailea:** Ataramiñe.

Oier Goitia Abadiak kartzelan idatzitako poemak biltzen ditu liburuak, Mikel Antzak apailatuak eta aitzinsolas batez aurkeztuak. Fresnesko kartzelan ezagutu zuten elkar biek; han jakinarazi zion Goiriak Antzari poemak idazten zituela, eta Antzari argitaratzeko egokiak iruditu zitzaion haletako batzuk.



## 'BELARTZETIK IHARTZERA. UDABERRI ETA UDAKO JAI-OHITURAK'

■ **Egilea:** Igone Etxebarria.  
■ **Argitaletxea:** Eusko Jaurilaritza.

Udaberriko eta udako esaerak, nekazaritza munduko ohiturak eta zenbait erri jositzen ditu Euskara Mintzagai bildumako lan honek. Ohitura erlijiosoak ez ezik, antzinako erri eta esaerak ere aurkituko ditu irakurleak.

## Literatura &gt;

## Etarren amen samina

Alex Gurrutxaga

Jakin-mina piztu zuen Carmen Gisasolaren liburuak pasa den udazkenean, eta bazuen horretarako arrazoirik, ETAkide izandakoak euskal gaztazka jorratu baitu *Gaur zortzi*-n. Gogoeta eragiteko asmoz, gai zehatz bati heldu dio.

«Etarren amek/ asko sufritzen dute./ Andre hauen bihotzean/ kabitzen da/ munduko min guztia», idatzi zuen Arestik 1974an. 2012an honela idatzi du Gisasolak: «Gutxienez zuk ulertuko bazeniz bizi duñan mina, ni bezalako ama batek izan dezakeen samina...» (19). Eta gaia jorrazteko, gogoeta eta kritikak plazaratzeko bereziki eraginkorra den generoa hautatu du idazleak: nobela epistolarra, oinarrian gutuna duena.

Planteamendua interesgarria da, originala (eta benetakoa ere izan zitekeen): alaba erakunde militar batean sartu da eta amak preso bati idazten dio bere kezka eta mina kontatuz. Baina planteamendua onartu arren, sinesgarritasun arazoak daudela esango nuke, handiena amaieran: ordu-

rarte ezkutuan egon den giza-erlazio baten berri ematen zaigu bat-batean eta, sorpresa bat izan badaiteke ere, erabat behartua da eta trama hondoratzen du.

Oinarritzko egiturari bi diskurtso elkartzeko ditu testuak. Bate-tik, aipaturiko gutuna dago, amak presoari idazten diona. Bestetik, narraztaile batek presoaren berri ematen digu: honek zer oroitzen duen, zer sentitzen duen amaren gutuna irakurtzean, eta abar. Esango nuke testua askoz efektiboagoa dela presoari buruzko pasarteetan amari buruzkoetan baino. Izan ere, amaren tragedia gutunaren bidez ematen da aditzera, baina esan liteke diskurtsoa ez dagoela oso lortua. Gogoetak lantzeko pentsamendu-figurak oso zorrotz erabili behar dira, eta lan-keta horrexen falta somatzen da nobelan zehar. Gainera, nobela epistolarraren ohikoa den beste osagaia, kritika (dialektika, nahi bada), apenas dagoen; ezer aipatzekotan, jopuntuan daude erakunde armatuaren burokratizazioa (75. orrialdea), «gu guztiok baino gehiago ematen» aritzearen ustea (48. orrialdea) edo Esta-

tuaren terrorismoa (48. orrialdea).

Aldiz, hunkigarriagoa da narraztaileak presoaz kontatzen duena edo amak presoaz pentsatzen duena; esaterako: «Egunak gauen jarraipena besterik ez dira izango hemendik aurrera niretzat, alabari ihes egiten utzi niolako aurreko ostegunean. Nire sufrimendua txikia irudituko zaizu zuri ostera, espetxeko zure min handiaren ondoan. Espetxeko marmar baldintzatuan, ez dakit erotu gabe nola hainbeste denboran bizi zaitezkeen hondoa jo barik» (60. orrialdea).

Estiloa dela-eta, esan daiteke



## ‘GAUR ZORTZI’

- Egilea: Carmen Gisasola.
- Argitaletxea: Alberdania.

testuaren sintaxiak irakurketa zailtzen duela. Bestalde, hasieran oso ugariak dira *-ik* amaiera duten hitzak eta tarteka estridentzia moduko bat eragiten dute: «Ahizparen etxea utzi eta berriz ere nireira iritsi naizenetik, hau da, duela lau egunetik hona, alabaren gelara joan-etorrika nabil geratu barik haren atzetik, haren itzalaren atzetik, ezertarako astirik gabe. Hark ihes egin duenetik, bizipozak ihes egin dit niri, ez dut jateko ez lo egiteko gogorik» (14. orrialdea). Horrez gain, irakurle gehienok ez gara akats gramatikalekin obsesionatzen baina kasu honetan esan egin behar da: agian ardua ez da idazlearena, edo ez berea bakarrik, baina guri emaitza axola zaigu, eta testua irakurketa desoroso egiten duten akats gramatikalez josita dago.

Nobela ahula da literarioki. Alabaina, liburu baten balioa ez da estetiko bakarrik (nahiz eta bai nagusia) eta alde horretatik interesgarria da borroka armatuan sartu direnen senideen sufrimendua eta bizipenak kontatzeko apustua. Hau da, irakurle, Gisasolak bidea egin dezagun jarri nahi izan duen harritxo.



## ‘ZER DA ARTEA?’

- Egilea: Lev Tolstoy.
- Itzultzailea: Aritz Gorrotxategi.
- Argitaletxea: Meettok.

Lev Tolstok 1896an argitaratutako saiakera da *Zer da artea?* Liburu euskaratzeaz gain, Aritz Gorrotxategi liburuari buruzko solasaldi batean bildu ditu Bernardo Atxaga, Harkaitz Cano eta Andoni Egaña, eta haien arteko solasaldia jaso du gero liburuan.



## ‘MUSKULUAK AFALTZEKO’

- Egilea: Birgit Vanderbeke.
- Itzultzailea: Ainhoa Irazustabarrena.
- Argitaletxea: Pasazaite.

Istoriaren kontatzailea, anaia eta ama, laneko bidaiatik iristear den aitaren zain daude. Aitarene itzulerà bakoitzean bezala, muskuluak dituzte afaltzeko. Baina orduak aurrera egiten dute eta aita ez da iristen. Familia-hierarkia tradizionalen kritika egiten du Vanderbekek.



## ‘SASIAN BARNÁ’

- Egilea: Xabier Makazaga.
- Argitaletxea: Ataramiñe.

Errealitatea eta fikzioa uztartuz osatu du estreinako nobela Xabier Makazagak. 1997an sortu zuen, baina zuhur jokatzea eta ez argitaratzea erabaki zuen. Sasian diren ETako militanten inguruan «intoxikazio ugari» egon direla iritzita, ETako zenbait kideren bizipenak kontatu ditu. Bruselan bizi da gaur egun.

## ↓ Haur eta gazte literatura

## Hitzaren gorpila (eta 2)

Imanol Mercero

Esku artean duguna *Hitzaren gorpila* deitzen den bildumaren bigarren liburukia da. Gaur hamabost egiten lehen partearena: *Urruneko motorrak mila zaldi*. Bertara jo zehetasunak nahi badira. Dena den, haren jarraipena da jarraian datorrena.

Bildumaren eiteari jarraiki, *Sasiak mendia jan* batik bat pieza laburrez osatua dago, ipuin pare bat eta bizpahiru orrialde-tan luzatzen diren bertsoaldiak tarteko. Guztietan probokazioa da motorra, galderak eta baieztapenak lotsagabe jaurtitzeko dira, hizkuntzaren jolasa beti tarteko.

Baina ez dadila inor okertu, jolasaren eta umorearen altzoan, liburu honek asmo sakona erakusten du plazaratzen dituen gaietan, eta estrategia ongi pentsatua erabilitako bitartekotan.

Alez ale, gazte nerabe batek jakin eta hausnartu beharko litzukeen proposamen kontaezinak daude, hasi azalekoenetatik (mo-

torrak, merkatalguneak,...), jarraiki gizarte kezketan (langabezia, krisia, politikariak, jujeak, funtzionarioak, presoak, ekologia, gerra,...) eta segi sakonenetaino (nortasuna, sexualitatea, heriotza,...). Eta gehiago, dibulgazio jakingaiak astintzeko tartea hartzen du, eta ez nolana, umorearekin edota sexuarekin konbinaturik; esaterako hona sexua eta geometria elkaturik sortutako alea: «Lorena: / π-erre-ber-bi-dun/ zirkuluaren azalera, / eta goazen ohera, / egitekoa egitera. / Kepa Mirena: / 4/3-?-π-erre-ber-hiru duk/ esferaren bolumena: / ohea egiteko zagok, bai, / eta egiteko hori/ prest daukak Lorena...», (77. orrialdea).

Baitezpada, jolas gogo aitortu horrek guztia kutsatzen du «Zer da, ordea, / hitzekin jolastera naraman/ irrika neurrigabe hau?», 115. orrialdea). Badaude jolas hutsarako piezak («Elerik hobere-na, / laburrena: / L», 43. orrialdea), badaude esaera zaharren aldaerak («A zer parea: halabeharra eta ustekabea!» 95. orrialdea), ba-

dauden bezala hitz neurtuani jositako kronika umoretsuak, edota narrazioetan agertzen dituen aliterazioa eta kakofonia... zerrenda amaigabea da.

Deskribapenarekin amaitzeko hiru pasarte nabarmenduko ditugu, obra honen soslai direlakoan.

Bata izenburua dakarren poesia sorta da, gazte orekatu, zalan-



## ‘SASIAK MENDIA JAN’

- Egilea: Joan Mari Irigoien.
- Ilustratzailea: Antton Olarriaga.
- Argitaletxea: Elkar.

tzati eta utzi banaren erretratu dakarrena eta honela amaitzen dena: «Utziz gero/ zabartzen gara, / eta sasiak mendia jan», (14. orrialdea). Sorta argigarria ez soilik idazleak garrantzia zeri eman dion jakiteko, baita ere liburuak gaiak sortaka proposatzeko moldea islatzen duelako.

Hurrengo biak idazleak bere burua agertzen dituenak dira, J. Ormazabal zenaren omenez bata (121-123 orrialdeak), esklerosia gaitzat daukana bestea: «Joango da, / Edo jango nau, / eta joango nau», (115. orrialdea). Hunkidura handiko aleak dira, idazleak bere kezka intimoena plazaratzen du bertan.

Zaila da hanpatutako hitzik gabe amaitzea. Aspaldi irakurritako obra landuena iruditutako ofizio handiko idazle baten lan saiatua, asmo sakonekoa eta apustu ausarta egiten duena. Neure buruari galdetzen diot ea asmatuko duen, ea balizko irakurleak kitzikatuko ote dituen, baina saiakera ederragorik, asmo nobleagorik ezin imajina nezake.

## Literatura →

## Familia tradizionala jopuntuan

Alex Gurrutxaga

Pasazaite argialetxe gazteak jarraitzen du kalitatezko literatura eta gurean ezezaguna dena itzultzeko ahaleginean. Birgit Vanderbeke (1956) idazle alemaniarren nobela labur bat da hau, Ainhoa Irazustabarrenak itzulia. *Das Muscheles* (1990) hauxe izan zen Vanderbekerren lehen lana eta Ingeborg Bachmann sari prestigiotsua jaso zuen. Esan daiteke orduz gero idazleak, nahiz eta Alemaniatik kanpo hain ezaguna ez izan, literatur ibilbide oparoa izan duela.

Ama, semea eta alaba aitaren zain daude. Aita lan-bidaiatik itzultzeaz da, eta, hori ospatzeko, muskuluak dituzte afaltzeko. Baina orduak aurrera egiten dute, eta aita ez da azaltzen. Horra nobelaren oinarriko egoera.

Abiapuntu horretatik ez da asko urruntzen istorioa, gertaera nagusiak lau ordu inguru irauteen baititu. Nobelak denbora horretan alabak pentsatzen duena kontatzen du, bakarrizketa luze baten bidez. Kontrastea nabarmena da: zain dauden denbora laburra da, eta astiro egiten du aurrera,

eta bitartean alabak gogora datozkion hamaika gauza kontatzen ditu. Puntu horretan Thomas Bernharden *Tala* (1984) obra ezezaguna gogorarazten du: bi nobelatan pertsonaia-lekukoaren bakarrizketa da testu osoa, *Talan* afaltzera gonbidatu duten pertsonarena, eta hemen berriz alabarena.

Alabaren gogoeten bidez familiaren ezaugarriak azaleratuz jotzen dira. Familia tradizionala da, hierarkia patriarkal zorrotza duena, arazoak ezkutatu eta atetik kanpora itxura gorde nahi duena, moral bikoitzekoa; alabaren hitzetan, «egunetik egunera antzetzten genuen benetako familia» (31. or.). Egitura horretan kide bakoitzak bere posizioa eta rola du, eta, guztien artean, iristear dagoen aita autoritarioa da dena baldintzatzen duena. Hori guztia, zertzelada askorekin, alabak kontatutako pasadizoen bidez ematen da aditzera. Alde horretatik, oso ongi funtzionatzen du testuak, irakurleak familia-erretretua osatzen duelako aurrera egin ahala.

Bestalde, nobelak familia egitura mota horren kritika zorrotza

egiten du (gogoratu behar da aipatutako Bernharden lanak ere kritika gogorra egiten ziola klase sozial bati). Ironia klabea da. Alabaren tonu (itxuraz) inozenteak nolabait muga egiten du ironiarekin. Batzuetan, kritika ebidentetia izanik ere, joko oso eraginkorra da; adibidez: «Noski, [aita falta zenean] ez genuen dena elkarrekin egiten, benetako familia batek egingo lukeen moduan, bakarrik erosketak, harrikoa eta etxeko garbiketak; hau da, guztion artean egiten genituen aita etxean izaten zenean amak berak bakarrik egiten zituen lanak, aita



## ‘MUSKULUAK AFALTZEKO’

- **Egilea:** Birgit Vanderbeke.
- **Itzultzailea:** Ainhoa Irazustabarrena.
- **Argialetxea:** Pasazaite.

gutxietsi egiten zituelako lan xumeak» (56. or.).

Aipagarria da mahaian dauden hiru pertsonaiekin garapen bat dagoela, ardoa lagun lasaitzen eta barrua askatzen hasten direlako. Hasieran pasadizoetan soilik hautematen den kritika azkenean ageriko egiten da. Egoera mugara iristen da azken lerrotan. Amaiera irekia da, eta gertatzen ari den aldaketa iradokita dagoenez, bukaerak ere ongi funtzionatzen du.

Liburua, 1990ekoa izanik, Ekialdeko Alemaniaren gainbeheraren irudi literario gisa ulertu zuten batzuek —gogoratu Berlingo Harresia (bota eta) erori berria zela—, eta, egia esan, erabat interpretazio balizkoa izan daiteke. Batez ere, momentu batetik aurrera behin eta berriz aipatzen direlako *tiranía*, *konspirazio* edota *matxinada* hitzak.

Edozein kasutan, familia tradizionalaren kritika da *Muskuluak afaltzeko* nobelan agerian dagoena: esango nuke liburuaren idazkerak ongi erantzuten diola erretretua osatu eta kritika egiteko nahiaroi. Azken batean, liburu gomendagarria da.



## ‘KARMEI’, 281 ZENBAKIA

- **Argitaratzailea:** Euskalerriko Karmeldarrak.

Javier Arrietak globalizazioaz eta enpresen euskalduntzeaz idatzi du *Karmel* berria; Juan María Arrizabalagak Euskal Herriko gotorlekuez; Julen Urkizak Friedrich Holderlinen poemak itzulpenez. Andoni Olea, Luis Baraiazarra, Jose Mendiaga, Joseba Aurkenerena, Amaia Iturbide eta Miren Agur Meabeuren lanak ere badira.

Virginiako Estatuari buruzko oharra

## ‘VIRGINIAKO ESTATUARI BURUZKO OHARRAK’

- **Egilea:** Thomas Jefferson.
- **Itzultzailea:** Iñaki Iñurrieta.
- **Argitaratzailea:** EHU.

Egilearen liburu bakarra da hau. Hainbat eta hainbat gutun, Estatu-paper, bi konstituzio eta dozenaka legeren egile izan bazen ere, idazlan honetan zehaztu zuen bere pentsaera politikoa. Jatorriz, galdetegi bati emandako erantzun multzo gisa osatua zuen testua.



## ‘MEAULNES HANDIA’

- **Egilea:** Alain-Fournier.
- **Itzultzailea:** Monika Etxebarria.
- **Argialetxeak:** Alberdania, Erein eta Igela.

Frantsesez idatzitakoan artean gehien irakurritako nobela da hau: 1913tik bost milioitik gora ale saldu dira poltsikoko edizioan. Gazte idealista, zoritxarreko eta abenturazale bat du pertsonaia nagusi, irakurle askok oso gertuko sentitzeko modukoa.

## ↓ Haur eta gazte literatura

## Zoriona inmateriala da

Margogintzari gorazarre egiteko sortutako album ilustratu honetan saguak topatuko dituzu, Lionni-ri gustatzen zitzaizkion eran eginda, collage-arekin eta sinpletasunetik abiatuta.

Matias izeneko ságu baten biografia osatzen da, haurtzarotik helduaro bitartean. Ibilbide honetan, protagonistak margogintzarako grina ezagutzen du eta margolari izateko erabakia hartzen.

Narrazioak emozio juxtua pizten du eta konta-teknika aldetik sorpresarik ez digu ekartzen. Egilearen Frederick ospetsuaren ildoari jarraitzen dio, artea-

ren aldarrikapena eginez eta kontsumismotik harantzago jokatuko gonbitea luzatuaz.

Alderdirik aipagarrienak albuma osatzeko erabilitako marrazketa teknika sinple bezain eraginkorra da —egile honengan ohikoa, bidenabar esanda— eta margogintzarako hurbilketa egiteko erabiltzen diren erduetatik datoz. Hain zuzen ere, margogintzarako hurbilpena egite horretan, irakurlea garai eta joera piktorikoetan barrena abiatzen da eta artearen gainean dituen irizpideak zorrotzera animatzen dute: zer da artea?, nor da artegilea?, zein inspirazio iturria? Nolako arte abstrakturako ibilbidea?

Album ilustratuek asko zor diote Leo Lionniri. Esan liteke bera izan zela, Eric Carle, Maurice Sendak eta Tomi Ungererekin batera, liburu formatu honen 50 hamarkadatik aurrera izan zuen gorakadaren aitzindari, literatura anglosaxoian lehenik eta mendebalde osoan geroza zabaldutako literatura horren muina. ■ **IMANOL MERCERO**

## Botereak usteldu egiten du

Botereak edonor usteltzen du. Edonor, edonoiz, edonon. Horixe da liburu honen marmia.

Egokia iruditzen zaizu hurrei botereaz hitz egitea? Zein adinetik aurrera? Duela ez hainbeste, *Hasiera* albumari buruz ari ginela, geure buruari galdetzen genion ea zilegi den gerra eta antzeko gaiak haurren literaturan bere laztasun osoan agertzea. Oraingoan, botereari buruzko hausnarketa da eztabaidagai.

Album ilustratuen formatuan aurkeztua, 40 orrialdeko luzeran, koroa ezarri zioten lehoiaren ankerkerien deskribapena-



## ‘KILI TXIKIA’

- **Egilea:** Mario Ramos.
- **Itzultzailea:** Aztiri Itzulpén Zerbitzuak.
- **Argialetxea:** Ttartalo.

rekin hasten da narrazioa. Despotia odolzale bihurtu den lehoi erregeak gupidagabeki gobernatzen du. Haren ahalmena ez da zalantzan jartzen, badaki matxinoak nola apaldu... baina egun batez Kili txori txikiak koroa lapurtuko dio, beldurrik gabe, eta hegan joango da, libre. Jarraian Kili beste animalia batzuei koroa jartzen ikusiko dugu, eta guztietan emaitza bera izango da: nagusikerietan hasten dira. Zer egin lezake Kilik koroarekin?

Irudien sotiltasuna oso adierazkorra da mezu hau zabaltzean, eta testuarekin batera ederki konbinatzen da. Biak ere sinple eta adierazkorra dira narrazioa garatzen. Horregatik, irudi luke liburu hau haur txikiak irakur litekeela. Azken finean, obra on guztiak bezala, album honek irakurketa maila bat baino gehiago eskaintzen ditu. Baina ezin da ahaztu gizartearen egituraketaz eta botereaz ohartzeko gaitasuna duen irakurlea dela obra honen balizko onurak jasotzeko prest dagoena. ■ **I.M.**



## ‘MATIASEN AMETSA’

- **Egilea:** Leo Lionni.
- **Itzultzailea:** Manu Lopez Gaseni.
- **Argialetxea:** Pamiela-Kalandraka.

## Literatura

## Odisea poloniarra

Alex Gurrutzaga

Euskal letretan beteranoa da Txomin Peillen, 1967an kaleratu baitzuen bere lehen nobela, eta orduz gero hainbat motatako lanak idatzi ditu. Bi liburu eman ditu argitara pasaden urtean. Bata adiskide izan zuten Jon Miranderi buruzko saikera da: *Jon Mirande, olerkaria* (Euskaltzaindiak argitaratua). Bigarrena, berriz, nobela da: *Jan Dabrowski*.

Gazterik idazten hasi arren baztertua zeukan istorioa berrartu eta amaitu du Peillenek. Funtsean abenturazko nobela dela esan daiteke: protagonista nagusiek (Jan Dabrowskik eta bere semeak) Europan zehar bidaiatzen dute bizi berriari ekiteko asmoz. Nobela Tadeusz semearen desagerpenarekin hasten da. Jatorri poloniarra duten gurasoak eta semea Parisen bizi dira, baina desagerpen horrek dena aldatuko du. Konturatzerako hirurak daude sekta batean preso eta handik ihes egitea lortzen dutenean, aita-semeek Poloniara, sorterrira joko dute. Abentura hau (liluraturik preso geratzea, etxerako itzulera,

eta abar) bidaia homerikoa bailitzan ere irakur daiteke.

Bestalde, aipagarria da pertsonaiak eurak mintzo direla nobelan. Lehen kapitulutik banaka-banaka aurkezten zaizkio irakurleari, modu dramatikoan (antzerki itxurarekin) gainera: «Dabrowski dut izena», dio nobelaren lehen esaldiak, «Atezaindegi ilun eta heze batean bizi gara». Oro har, gutxi sakontzen da pertsonaien izaeran eta momenturen batean duten funtzioak definitzen ditu (Patrick, Gantxoa, Andrzej, eta abar). Salbuespena aita-semeak dira, batez ere Jan Dabrowski bera, hari nagusia bere inguruan bilbatzen denez gero.

Abenturazko nobela izanik eta hizkera freskoa lagun, irakurketa azkarra ahalbidetzen du testuak. Alabaina, badira bi luzapen, bi une non narrazioa nolabait gelditzen den. Lehenengoa Jan Dabrowski Eguzki Semeen sektara iristen denean gertatzen da. Xehetasun asko ematen da kontuari buruz eta nobelak hasieran hartzen duen abiadura bat-batean gelditzen da. Bigarren pausaldia amaieran dago: badaude bost kapitulu teoria askotxodutenak.

Kapitulu horietan istorioak nekez egiten du aurrera eta politikari, historiari eta gizarteari buruzko gogoetak nagusitzen dira. Esan behar da gogoeta oso interesgarriak direla, batez ere Poloniako gizarteaz eta historiari ari delako eta gaiok bazter hauek ez direlako usu aurkitzen. Baina, aldi berean, nago istorio nagusiarrentzat geldialdia luzexkoa egiten ote den.

Alde horretatik batasuna falta zaio nobelari: esango nuke tonu eta erritmo aldaketa horiek (abiadura ematen duten elipsiak alde batetik, eta luzapen eta geldialdiak bestetik) ez duteia ongi fun-

tzionatzen. Irudi lezake bi liburu daudela batean: tesi nobela oso interesgarri bat, gizarte jakin baten irudi konplexua eskaintzen duena, eta abenturazko nobela bat, momentu teoriko horietan indarra galtzen duena.

Ihesaren eta sektaren inguruko abenturak aparteko berezitasunik ez duen arren, Poloniako egoerari buruzko atala berritzailea da. Herrialdearekiko hurbilpena konplexua eta kritikoa da eta, oinarrian Poloniako errealtatea egonik ere, prisma orokorrigo baten bitartez begiratu daitezkeen gaiak jorratzen dira: komunismoa, konkista, askapena, emigrazioa, industriaren garapena, ekologia, kolonialismoa, eta abar. Hainbat gai, emigrazioa eta itzulera esaterako, euskal kontestura ere errazekar daitezke. Arago, zilegi da analogiaz interpretatzea testuan agerikoa den naturaren eta baserriko bizitzaren gorripamena edota amaiera ezin erromantikoa («orain mendia dut ahaide bakarra»).

Azken batean, ezin esan nobela borobila denik. Alta, bere alde du Ekialdeko Europaz sortzen duen irudia.



‘JAN DABROWSKI’


- Egilea: Txomin Peillen.
- Argitaletxea: Utrisque Vasconia.



‘JON MIRANDE, OLERKARIA’

- Egilea: Txomin Peillen.
- Argitaratzailea: Euskaltzaindia.

Jon Miranderen 42 poema bildu ditu Txomin Peillenek, jatorrizko bertsioarekin batera frantseseko itzulpena aurkeztuz. «Erdaldunentzat egin dut liburu hau», esan du Peillenek, «baina euskaldunek ere balia dezaten, bizi kontzetan da». *Jon Mirande, poète parisien* da liburuaren frantseseko izenburua.



‘URRUNEKO MENDEBALEAN ARTZAIN’

- Egilea: Mattin Etxamendi.
- Argitaletxea: Maiatz.

## ↓ Haur eta gazte literatura

## Ipuin laguna

Oroimena oso jostaria dela frogatu nahi baduzu, har ezazu liburuxka hau, Edurne Zuriren ipuina da. Irakurri eta hausnartu apur bat. Harrituko zaitu, zenbat xehetasun ahaztuak, zenbat uste eraitsiak!

Ahalegina ez da luzea, 24 orrialde doi-doi dituen azal biguneko 18x21 cm-ko liburuxka bat da, Grimm anaien Edurne Zuri ospetsuaren bertsio fidela.

Hizkera garbia du, sotila, ahoz gora irakurtzeko egokia. Ekialdeko euskara batuan idatzita dago, izenburuak salatzen duen

bezala, baina hegoaldeko irakurlearentzat trabarik ez duena, hitz honekin edo harekin ktramilatzeke seta agertu ezean.

Irudiek orrialde osoak hartzen dituzte, beltza, zuria eta gorria nagusi. Maiz beltzaren kontrastean ezarritako zuri-gorria eta kolorea berdearekin eta urdinarekin emana. Kolore eta formaren tratamenduak ordenagailu bidezko lanaren estetika du, clip-artetik gertu.

Protagonista, badakigu, Edurne Zuri da eta ekintzak neskatoak zazpi urte beteak dituela abiatzen dira, amaorde gaiztoak Edurne basora bidaltzen duenean, ehiztariak hil dezan. Nahikoa arrazoi pentsatzeko lehen irakurraldia heldu baten bitartekaritzarekin egiteko dela. Agian bien artean irakurri eta ikustekoa. Eta gogortu ez dela zertan agerian jarri obra honek kanpoko arriskuez emandako lezioa duela bere baitan, esanak obeditzearen garrantziaz diharduela... utz diezaigun ipuinari bere lana egiten, berak badaki-eta nola hitz egin hurrei. ■ IMANOL MERCERO

## Liburu irudidunak

Aspaldion sekulako liburu ederrak argitaratzen dihardu Ibaizabal argitaletxeak. Ederrak diot, tamaina eta irudiengatik.

Esaterako, *Basoko loti ederra* hau 32 orrialdeko 28x29 cm-dun eta azal gogorreko liburu irudiduna da, zehazki hamasei irudi erraldoi dituen, gehienak metro erdi baino luzeagoak.

Bertan, Perraulten testuari fidel jarraitzen dion bertsioa daukagu, nahiz eta moldatzaileak —Elodie Fondacchi— narratzaile hitzontzi bat eraiki duen, irakurlearen desesperaziorako



‘BASOKO LOTI EDERRA’

- Idazlea: Elodie Fondacchi.
- Ilustratzailea: Eric Puybaret.
- Itzultzailea: Joxe Antonio Sarasola.
- Argitaletxea: Ibaizabal.

(nola liteke hau egitea bere aurkezpen fitxan ipuinak irati bidez irakurtzea bere jardura gogokoena eta espezialitatea dela dioen norbaitek?). Irakurlea haurra bada ere, ipuin hau hautatzekotan gogoan izan behar dugu haurtzarotik nerabezarorako trantsizioaz hitz egiten duela.

Baina ez da hau Ibaizabalek argitaratutako liburu irudidun bakarra. Kroko pertsonaiarekin bi liburu berri eskaintzen dituzte. Batean, musika tresnak agertzen zaizkigu, hegal mugikorrekin. Bigarrenean, Kroko mozorrotzeko gonbita luzatzen zaigu, mozorroen konbinaketa egiteko aukerarekin, sei irudietako bakoitza hiru zerrendatan trokelatuta baitago.

Era berean, Surikata taldearen bi ale argitaratu dituzte, zenbakiekin bata, aurkakoekin beste. Pertsonaia berriak dira surikatak argitaletxe honetan, tamaina ertaineko formatuan emanak, hegal mugikorrekin eta irudi koloretsuetan. Krokoekin batera, 2 bat urtetik aurrerako irakurleentzat. ■ I.M.

Esterenzubin (Baxenabarre) jaio zen, 1936an; eta 22 urte zituela joan zerb Mattin Etxamendi, Eñaut Etxamendi idazlearen anaia, AEBetara, artzain lanean aritzera. Bakersfielden (Kalifornia) bizi da egun. Liburu honetan lehen pertsonaia kontatu ditu bere oroitzapenak, «biharko euskaldunak» gogoan.



‘BELE XURIAK’

- Egilea: Janbattitt Dirassar.
- Argitaletxea: Elkar.

Gogoetak eta «egiako oroitzapenak» jaso ditu Janbattitt Dirassarrek liburu honetan, 58 urtez kazetari lanbideari atxikia bizi ondoren bilduak. Lehendik kontatuak zituen gertakari eta istorio askori gogoeta pertsonala erantsi die oraingo honetan egileak, arreata berezia emanaz hunkidura handienak eragin ziketenei.



‘ELUR-XURI’

- Idazleak: Grimm anaiak.
- Ilustrazioak: Mayalen Goust.
- Itzultzailea: Luixa Giltzu.
- Argitaletxea: Ikas.

## Literatura →

## Euskaldunak Arrifeko gerran

Alex Gurrutxaga

Joxemari Iturralde berak esan duenez, Melillako hilerriak, zuri-zuri itsasgainean ia, liluratuta utzi zuen behinola. Orduetik buruan ibilitako istorio eta gogoeten emaitza da *Ilargi horia*. Idazlea egon zen bezala dago nobelaren hasieran Eugenio, pertsonaia nagusia, *cimetière marin* eiteko kanposatuan. Oroigarri bat ikusten du eta han, Arrifeko gerran hildakoen izenen artean, deitura euskaldunak. Han dago berea ere, arbasoak han egon izanaren lekuko.

Bi garaia garbi bereizten dira nobelari: aita-osaben istorioaren eta Arrifeko gerraren atala (2.a), eta Eugenioen berri ematen duten hiru atal (1., 3. eta 4.a). Hiru hauetako bakoitzean protagonistak bidaia bat egiten du Melillara; gauza bertsuak egiten ditu beti, baina dena ari da aldatzen. Hotelaren deskribapenaren bidez, sinbolikoki, modu sotilean erakusten da denboraren joana. Gainera, elementu batzuk mantenduz eta beste batzuk aldatuz, ongi irudikatzen du testuak Melillako giroa.

Apurka, Mazmer agureari esker, arbasoai buruzkoak deskribitzen ditu Eugenioak. Hala, istorioak atal bakoitzean kokka bat egiten du aurrera, eta tentsioa ederki mantentzen da amaieraraino. Intrigaz gain, bada amodio zantzuren bat, eta baita umore printzarik ere. Bi apunte halere. Bata: bi kapitulu iraganean kontatzen dira eta bestea orainaldian, esango nuke, arrazoi sendorik gabe. Bigarrena: Mazmer agurearen aurkezpena, aura misteriotsuan bildua, topikoa da eta nobelak duen errealismoa hausten du une batez.

Melillako hilerrietik bigarren ataleko (*Almanaka*) hilerria: Arrif, 1921, edonon daude hilak, guduzelaian, lurperatu gabe, hautsita, hienen bazka izateko zain, begietan azken uneko izua. Marokon ezarritakoari Protektoratu deitu izan zaio Espainian eta hango gertaerari pazifikazio. Inork esango luke lurraldea kolonizatua zutela eta bertakoek kolonizatzaileen kontra egin zutela borroka. *Almanaka*-k gerran dagoen aragoar baten egunerokoa irudikatzen du. Oso ongi narraituta dago: hilotzez inguratutako

blokkoa, zain egon beharra, etsipena (Tartariarren desertua ezagunaren airera), arriskua, eta batez ere heriotza izugarriak. Atal indartsuena da beharbada hau. Hona lerro batzuk: «Etsipena erabatekoa da. Lasa hil da jakin gabe non zegoen, eta zergatik jakin gabe. Jakin gabe zergatik behartzen zuten tiroak botatzera eta jakin gabe zergatik hil nahi zuten. Espainiera ulertu gabe, hil dute lekuri ez aproposenean eta uneri ez egokienean egoteagatik» (62. orrialdea).

Honekin lotuta badago sakone-



## 'ILARGI HORIA'

■ Egilea: Joxemari Iturralde.  
■ Argitaletxea: Pamiela.

an gogoeta eta kritika orokorrago bat ere, gerrari eta bere eragilei buruz, lurraz eta inbasioez, norbere lekuaz eta herriaz, identitateaz eta memoriaz. Maiz ekarriko dituzu, irakurle, gogoetak etxera: «Eta hauxe da nik diodana: ze arraio ari gara gu egiten hemen, lurralde afrikar honetan? Zertarako gaude hemen? Gurea ez den lurralde batean nahi dugu agindu, beraien jaioterrian nahi ditugu geure legeak ezarri. Jende hau bakean utzi beharko genuke...» (86. orrialdea).

Sarrionandiaren *Moroak gara behelaino artean?* (2010) liburua zela eta honela idatzi zuen Iturralde: «Bere asmoa ez da, inolaz ere, historia ortodoxo eta akademiko bat burutzea (...), bere nahia izan baita alderantzizkoa juxtu, elementu diskordanteak sartu guk egin dezagun gure hausnarketa» (2010-12-10). Horixe esan daiteke *Ilargi horia*-ri buruz ere. Nobela ederra da estiloz zein mamiz, sendotasun historikoa du (gauza preziatua nobela historiko txepelen garaian), abenturatik ere asko eta, horrez gain, hausnarketarako bide interesgarriak eskaintzen ditu.



## 'SAPER AUDEI ERLIJOTIK ETIKARA'

■ Egilea: Jon Sudupe.  
■ Argitaratzailea: Arabako Foru Aldundia.

Becerro de Bengoa saiakera sarria eskuratu zuen Jon Sudupek lan honekin 2011n. Obrak ni autonomo modernoaren sorrera aztertzen du; bere kabuz erabakitzen duen instantzia moral eta askea den eta erlijioaren edo ideologiaren tutoretzatik erabat aske dagoen niaren sorrera.



## 'IDATZ &amp; MINTZ', 54 ZENBAKIA

■ Argitaratzailea: Labayru Ikastegia.

Jabier Kalzakortaren *Balada gaur biren ereduak: 'Plazan zer berri da?' eta 'Alhargüntsa?'* artikulua du lehena *Idatz & Mintz*-en 54. zenbakiak. Amaia Iturbide, Eneko Urizar, Miren Agur Meabe, Iratxe Ormatza, Eukene Martin, Luigi Anselmi eta Sebastian Gartzia Trujilloren lanak era badira.



## 'EUSKARAREN HAUTEMATEA AZKOITIAN XXI. MENDEAN'

■ Egilea eta argitaratzailea: Maxizatzen Euskaldunon Elkarte.

Inksten eta eztabaida taldeen ekarpenen bidez euskarak gaur egun Azkoitian duen egoera aztertute dute liburuaren egileek, ikuspuntu askotatik, eta ondorio batzuk atera amaieran. Ondorio nagusia da badirela arriskua eta egin beharreko lanak.

## ↓ Haur eta gazte literatura

## Suple bezain adierazkor

Ezin jakin duela berrogeita hamar urte zirriborro koloredunekin kontatutako istorio honi irakurleek egin zioten harrera nolakoa izan zen. Gaur egun ere kosta egiten da ulertzea nola den hain ulerterraz eta adierazkor forma gabeko pertsonai hauekin sortutako istorioa. Giza irudimenak hartarainokoa ematen du, bistan da.

Album ilustratu eran argitaratutako liburu hau ertaina da tamainaz —22x22 cm—, ertaina luzeraz —48 orrialde— eta gogorra azalez. Ulerterraz da, lau bat urtetik aurrerako irakurleontzat, eta iradokitzailea adiskidetasuna eta arrazakeria gaietan, batik bat.

Era berean lezio bikaina da plastika zein narrazio teknika alorretan, irudimentsua eta berritzailea, oraindik ere, 1959an argitaratua izanagatik.

Kontatzen duen istorioa, izenburuak dioen bezala, orbain urdin eta hori biren gorabeherak ditu ardatz. Lagun minak izaki, bi txikitxo hauek elkarrekin egoten dira, elkarrekin jolasten eta ibiltzen. Egun batez, besarkatu eta bat egiten dutenean hasten da korapiloa, bien baturatik orbain berdea sortzen dutelako. Euren ez die axola, hain gustura sentitzen baitira, baina euren gurasoek harrera gaiztoa egiten diete, nor diren ezagutzen ez dutelako...

Bai lagun, obra hau nahitaezko irakurketa da, adin guztientzat. ■ IMANOL MERCERO

## Gelako horma edertzekoak

Liburu hau narrazio ilustratu bat zela idazten ari nintzen une berean ohartzen ari nintzen ezetz, irudiek badutela obra honetan testuak adinako indarra, ia letrei itzal egiteraino sorgintzen dutela irudiok. Portzelanazko panpina dirudien Eriaren irudiok, benetako portzelanazkoak ez bezala, Erika musu gorria, azal gorria, oro gorria erakusten diguten neskato begi handiaren irudiok.

Baina ezin esan album ilustratu bat denik, irudiek ez dutelako kontaketa haria eramaten eta, beraz, ilustrazioez oha-

rra eginik ere, obra honek narrazio ilustratua izaten jarraitzen du, alegia, irudiz edertutako kontaketa bat.

Baina bitxia da testuak posesiatik asko duela eta heldulekutat gunden horixe ere, *narrazio* hitza ere, labaintzen zaigula. Zeren egia da, testu honetan ez da ia ezer gertatzen, adatsak sortzen dizkion buruhaustek negarka kontsolatzen dituen neskato baten erretratua eta malkoz hezetutako loreontzi batean sortzen den lorearen kronika. Besterik ez. Edo hau bezainbeste, nondik begiratzen den.

Hala ere hau ez da poesia liburu bat eta, etsi etsian, narrazio irudidun liburu bat da hau, esango dugu, adina zehazteke, argitaletxean gomendatzen duen bost urteko hori zalan-tazkoa begitantzen baitzait testuak iradoki lezakeena harapatzeko.

Hori bai, bertako hainbat pasarte, bertako hainbat irudi, gelako horman zintzilikatzeko modukoak dira, hau ziur esan dezaket. a. ■ I.M.



## 'ERIKAREN TTILIKAK'

■ Idazlea: Castillo Suarez.  
■ Ilustrazioak: Estibalitz Jalon.  
■ Argitaletxea: Aizkorri.



## 'URDIN TXIKI ETA HORI TXIKI'

■ Idazlea eta ilustratzailea: Leo Lionni. ■ Itzultzailea: Manu Lopez Gaseni. ■ Argitaletxeak: Pamiela eta Kalandraka.